

ARRASATE ^{PRESS}

1993ko ekainak 11

196. zenb.

JOSE MARIA ARIZMENDIARRAETA

ESKOLA
POLITEKNIKO



Kirolak
Mondrako neskak
Kopan irabazle

Eskola Politeknikoa

Urrezko
ezteiak



Bedoñabe Erdikoa (San Andres)

San Andres auzuen, Polmetasa eta Elektrokikie bittartien pabelloiz inguratutik dau Bedoñabe Erdikoa basarrixe, Axeri izenez ezaunaue dana, lehen lur goxo eta emonkorren artien euen eta laster galduko dan Mundraue zaharreko beste etxe bat.

Pasau barri die 100 urte Arregitar familixiek etxe hau erosi ebela, Bixente Arregi Azurmendik. Eta famelixa hau 100 urte lehenau bertan bizi zan konstantzie be, gerra ostien, 1945 inguruen, sagardotegi moduen jentiendako zabalik egon zan; itxurie daue nez gainera lehenengokuetan bentzet egundoko arrakastiaz.

Eurek sagastixek baeukien baiñe publikuen eskarixei erantzuteko kanpotik



ekarri biher izeten euen sagera, Ezkiogatik.

San Andres guztiko lurrak onak izen die labrantzarako. Eta Axeritik ortu jenero astokada asko eruen izen zien

plazara.

1945ien bertako semie Juan Arregi Etxabe etxera ezkondu zan Eugeni Zuazubiskar Larrañaga Mietzerrekako Txoxako alabiaz. Bi ala-

ba izen zittuen, Juana Mari eta Miren. Aurreko generaziñuen Juanek hamar anai-arreba euki zittuen, Mundrauen hain ezaunek dien Axeritarrak.

udan euskaraz arin-arin

UZTAILEKO IKASTARO TRINKOAK!!!



- 3 eta 5 orduko klaseak, goizez.
- Euskalduntzeko maila guztiak.
- Klaseen hasiera: ekainak 28.

ESKAIINTZA BEREZIA:

Beraien ikasketetan euskararekin (asignatura soil bezala zein ikasketen ohizko hizkuntza bezala) arazoak dituzten LH, REM, BBB eta UBiko ikasleei zuzendutako ikastaro berezia.

Informazio gehiago:

ERDU-AEK EUSKALTEGIA

Garibai etorbidea 14-3. (Sindikatu etxea) Tfnoa: 77 03 69

Gatzagan,
erdi erdian...
**ZUHAITZ
JATETXEA**




**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurilaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Larrei pentsau barik

Papela eta boligrafoa, une bat eta zirriborroa. Idazten hasi naiz. Zergatik edo zertarako idazten dudan, pentsatzen. Ez dakit beste batzuk balio gehiago, ez noa ezer berria kontatzera. Ni, zerbait idaztera limitatzen naiz, eta zuek irakurleok, pentsatu nahi baduzue, hauetaz. Kritikatzera besterik gabe ez dut atsegin, eta nik ahal dudan moduan arrazoitzen dut esandakoa. Atsegin ez baduzu, zure arazoa da. Ez da nore desioa, Arrasate Pressek daukan irakurle gozatu guzti hauek diodana gustoko izatea. Ezinezkoa liteke, gainera.

Eta zer nolako azpergarria. Jendeari, entzun edo ikusi nahi duena bakarrik erakustea, baita gauza askotan, denontzat eskuak ondo garbituta edukitzeko aproposa ere.

Hauteskundeak pasa dira, bai behintzat kanpainak, hautagaiak eta abar. Oraindik ere, edukiko dugu horri buruz zer entzun. Atzo hauteskundeak, gaur zer bixamona? Jende askorentzat, ikusten denez, ez jai ezta penarik. Denak berdin jarraituko duela, ez dela ezer aldatuko, ez dute parte hartu, ez du merezi...


Arazoa da, batzuk "legitimatuta" daudela, emakume eta gizon guztien gaintetik, beraiengan jarri izan delako papeletan "konfidantza" hori. Boterean daude, hala ere, ez dituzte kaleko jendeak, jende xeheak, "legitimitate" hori ez daukan jende arruntak eska-

tutako legeak aldatzen. Jende askok nahi du soldaduzka kentzea, jende askok poliziaren ekintzak neurtzea eta ahal den beste murriztea, eta horrelakoak aipatzen zahartu egingo nintzateke.

Hauek badute nork eurei botatu, eta horregatik pozten dira guk gauzak hobetzea ezinezkotzat jotzen badugu; eurentzat hobeto, bizitzako alor guztietan kexatu arren, konpontzeko ezer egiten ez badugu. Bai, egia da, legalki egiten uzten diguten protesta instrumentu bakarra dela, eta ez dago honekin dena eginda, lehen mezatarara joatearekin egiten zela uste zen bezala.

Gauzak ez dira aldatuko, gogoz nahi ez badugu behintzat. Gero eta telebista gehiago ikusi, gero eta gertatzen diren gauza askotaz konturatzeari gehiago uko egin, gero eta norberari dagokionak bakarrik axola, kaka putzu handiagoan itoko gara.

IKER BARANDIARAN



• ARRASATE PRESS •

Argitaratzaileak: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1.- 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Rosa Mondragon. **Publizitateak:** Kepa Oliden (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Laso, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikara, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatuta. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS
paper ekologikoan egiten da.

Azaleko argazkia: Luis Fernandez

.....

Egibarrek esandakoari

Lehenengo egunean ATBek gaueko 9.30etan emititutako mahain-guruan PNVko partaide den Joseba Egibarrek Arrasateko presoaren Jose Ramon Bidaburu Otadui "Txarra"ri buruzko aipamen hotz, zikin eta interesatua egin zuen.

Honen aurrean Arrasateko Amnistiaren aldeko Batzordea zera kaleratu nahi du:

1— Lehen eta atzeneko aldiz Arrasateko mailan "Txarra"ri traidore titulua leporatu dion bakarra Joseba Egibar izan dela.

2— Inoiz agertu ez diren pintadak ere Joseba Egibarrek ikus omen dituela.

3— Ez dagoenari buruz lasai hitzegiten du Egibarrek, bainan ez diogu inolako aipamenik entzun, egon, ikusi eta konzienteki isilarazten duen hainbat espetxe egoerataz. Zer gertatzen da besteak beste hain sufrimendu gordin sortzen duen "Salto den Negro" kanariar espetxeari buruz?

4— Urte honetako otsailan jakinarazi zigutenez, "Txarra"k arrazoi pertsonalak direla medio Euskal Preso Kolektibotik at gelditzea erabaki zuela.

Honen ondorio zuzenez, Amnistiaren Aldeko Batzordea aipatutako kolektiboaren bozeramale izanez, "Txarra"ren bozeramale izateko inolako gaitasunik gabe uzten gaitu bere erabakiak.

Ramon Bidabururi hainbat urtetako militantzia aitortzen diogu eta errespetatzen ere bere erabaki pertsonalak, nahiz eta berarekin bat ez egon Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren hildoarekin ez bait dago.

Egibarrek jaurtitako gezurrek ez dute inolako mesedeari egiten Euskal Herriari.

ARRASATEKO AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEA

.....

Zergatik ez Zutik ATBn?

Hauteskundeetarako programa berezia dela eta, egun batzuk direla, dei bat jaso genuen ATBtik bertara hurbiltzeko gure parte hartzeaz hitzegiteko.

Gure postura emateko eguna eta ordua ere jarri ziren. Imaginatuko duzue gure harridura handik laister beste kontrako dei bat jaso genuenean. Etxe honetan guri espaziorik ez ematea erabaki zenuela, ez guelako listarik aurkezten eta gure botoa HBrentzat eskatzen guelako, hau dela eta gure postura ordezkatuta zegoela.

Egia da zerrendarik ez dugula aurkezten hauteskunde hauetarako eta honen zergatia azaltzea nahi dugu.

Orain arte beti aurkeztu izan ditugu zerrenda propioak interesgarria iruditzen zitzaigulako hauteskunde kanpainak eskeintzen ditugu "irris-tutxoak" aprobetxatzea, gure iritzia ahal denik eta jende kopuru handienari zabaltzeko, eta gero gure zerrendak erretiratu, beste norbaitentzat botoa eskatzen dugunean.

Baina azkenengo hauteskundeetan izandako aldaketa batek, kanpaina egin ondoren, zerrenda erretiratu ahal izateko debekua eta hau egin ezkerro isun milonarioak ordaindu beharra. Guk bezalako alderdi batek ezin eta ordaindu nahi ez dituen isunak, (are gehiago guretzako hain garrantzitsua ez den zerbaitegatik), gure jorkaera aldatzera behartu gaitu, hau da, zerrendak ez aurkeztera.

Bestalde, ez dugu HBren iritzi berdina ez hauteskunde eta ezta ere beste hainbat gairi buruz, momentu honetan beraiatzat botua eskatu arren eta horregaitik ez gara sentitzen alderdi honegatik ordezkatuak.

Azkenik, sarritan entzun

dugu ATB ez dela beste telebista instituzionalak bezalako, herrikoia eta alternatiboa dela, kasu honetan ez dugu oso garbi ikusten diferentzia.

Ez dugu ulertzen ez eta onartzen zuen erabakia.

ARRASATEKO ZUTIK

.....

Abertzaleok galdu gau

Kongresu-Senaturako emaitzek hori diote, nondik nora?

1- Komunitate autonomo mailan PSOE agertu da irabazle, beraz, EAJK nahiz eta boto kopuruari begiratuta iagoera polita euki, kualitatiboki ikusita galdu egin du betidanik eurak euki dabien hegonia edo lehentasuna, hau da, txirindulari exenplo bat jarrita, liderraren maillot horria galdu egin du.

Oso garrantzitsua zen alderdi abertzale batek maillot hori eukittie.

2- Gizpuzkoan Herri Batasunak bere lehentasuna galdu egin dau eta Eusko Alkartasunak gehi Euskal Ezkerraren proiektua gizarteak ez dau bereganatu, horrela, berriz ere atzerriko alderdi bat jarri zai-

gu aurrean, hau da, PSOEk maillot larua eta mendietako maillota ere lortu du.

3- Araban, eta exenplo bera erabilita, PSOEk betik irabazi dauen "metas volantes" en premia, oraingoan ere irabazi egin dabe eta beraz, tinkotu egin dituzte euren aukerak.

4- Aurreko hirurak ez dira gutxi eta PPK buruko pelotioan sartzea lortu du.

5- Hor dauz emaitzak, estatutu mailako partiduek 11 diputatu, eta alderantziz abertzaleek 8.

6- Areagotuz, Nafarroako emaitzak okeragoak dira, zergaitik abertzaleok kanpoan gelditu gara, hau da, kontroletik kanpo iritsi gara helmugara.

7- Nafarroako emaitzak komunitate Autonomoari gehituta, balantzea guztiz desorekatua da: 16 diputatu estatu mailako partiduek eta 8 diputatu euskal partiduek.

Azkenean erreflexio bi:

1- Abertzale bezala nor izan beharko da geure artean aldaketa baikor bat agertzeko? Alderdi handiena? Erdikoa? Ala txikiena?

2- Bestela, autodeterminazioz nola?

**PEDRO MARI RUIZ DE AZUA
JAVIER BENGOA**

ARKOren oharrak

Joseba Egibarrek ATBko Hauteskunde programan Ramon Bidaburu "Txarra"ri buruz esan zituenak salatzeke Arrasateko Amnistiaren aldeko Batzordeak igorritako gutun hau, irakurri gabe gai aipatu bakarrik egin genuen informatiboan, aurkezlearen hitzetan komunikaturik ez delako jartzen, eta aldizkarian argitaratzeko berandu zelako. Horrez gain, hauteskunde kanpainen geundenez, horretarako berariaz jarritako tarteetan izan ezik alderdien edo alderdiei buruzko testurik kanpainen zehar ez argitaratzeko erabakia hartua eta aditzera emana zuen ARKOko Zuzendaritza Batzordeak 93ko maiatzak 28ko ARRASATE PRESSEn.

Egia da Zutik-i lehenik hauteskundetako tarte eskaini egin zitzaioela, erabakia hartuta zegoen arren barruko gaizki-ulertze baten erruz.

HB eta Zutik gauza bera ez direla badakigun arren, aukera hori herrian ordezkaritza izan eta zerrenda aurkezten zuten taldeei bakarrik ematea erabaki zen, nolabait mugatu behar eta, eta horrela, bi alderdi izan arren koalizioan aurkeztu direnei ere aukera bakarra eman zaie.

Gatzagan,
erdi erdian...
**ZUHAITZ
JATETXEA**




**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Larrei pentsau barik

Papela eta boligrafoa, une bat eta zirriborroa. Idazten hasi naiz. Zergatik edo zertarako idazten dudan, pentsatzen. Ez dakit beste batzuk balio gehiago, ez noa ezer berria kontatzera. Ni, zerbait idaztera limitatzen naiz, eta zuek irakurleok, pentsatu nahi baduzue, hauetaz. Kritikatzea besterik gabe ez dut atsegin, eta nik ahal dudan moduan arrazoitzen dut esandakoa. Atsegin ez baduzu, zure arazoa da. Ez da nore desioa, Arrasate Pressek daukan irakurle gozabala guzti hauek diodana gustotokoz izatea. Ezinezkoa liteke, gainera.

Eta zer nolako azpergarria. Jendea, entzun edo ikusi nahi duena bakarrik erakustea, baita gauza askotan, denontzat eskuak ondo garbituta edukitzeko aproposa ere.

Hauteskundeak pasa dira, bai behintzat kanpainak, hautagaiak eta abar. Ora indik ere, edukiko dugu horri buruz zer entzun. Atzo hauteskundeak, gaur zer bixamona? Jende askorentzat, ikusten denez, ez jai ezta penarik. Denak berdin jarraituko duela, ez dela ezer aldatuko, ez dute parte hartu, ez du merezi...


Arazoa da, batzuk "legitimatuta" daudela, emakume eta gizon guztien gainera, beraiengan jarri izan delako papeletan "konfidantza" hori. Boterean daude, hala ere, ez dituzte kaleko jendeak, jende xeheak, "legitimitate" hori ez daukan jende arruntak eska-

tutako legeak aldatzen. Jende askok nahi du soldaduzka kentzea, jende askok poliziaren ekintzak neurtzea eta ahal den beste murriztea, eta horrelakoak aipatzen zahartu egingo nintzateke.

Hauetaz badute norke euren botatu, eta horregatik pozten dira guk gauzak hobetzea ezinezkotzat jotzen badugu; eurentzat hobeto, bizitzako alor guztietan kexatu arren, konpontzeko ezer egiten ez badugu. Bai, egia da, legalki egiten uzten diguten protesta instrumentu bakarra dela, eta ez dago honekin dena eginda, lehen mezataria joatearekin egiten zela uste zen bezala.

Gauzak ez dira aldatuko, gogoz nahi ez badugu behintzat. Gero eta telebista gehiago ikusi, gero eta gertatzen diren gauza askotaz konturatzeari gehiago uko egin, gero eta norberari dagokionak bakarrik axola, kaka putzu handiagoan itoko gara.

IKER BARANDIARAN



• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1.- 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantza Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Rosa Mondragon. **Publizitateak:** Kepa Oliden (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egues. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS
paper ekologikoan egiten da.

Azaleko argazkia: Luis Fernandez

Egibarrek esandakoari

Lehenengo egunean ATBek gaueko 9.30etan emititutako mahain-guruan PNVko partaide den Joseba Egibarrek Arrasateko presoa den Jose Ramon Bidaburu Otadui "Txarra"ri buruzko aipamen hotz, zikin eta interesatua egin zuen.

Honen aurrean Arrasateko Amnistiaren aldeko Batzordea zera kaleratu nahi du:

1— Lehen eta atzeneko aldiz Arrasateko mailan "Txarra"ri traidore titulua leporatu dion bakarria Joseba Egibar izan dela.

2— Inoiz agertu ez diren pintadak ere Joseba Egibarrek ikus omen dituela.

3— Ez dagoenari buruz lasai hitzegiten du Egibarrek, bainan ez diogu inolako aipamenik entzun, egon, ikusi eta konzienteki isilarazten duen hainbat espetxe egoerataz. Zer gertatzen da besteak beste hain sufrimendu gordin sortzen duen "Salto den Negro" kanariar espetxeari buruz?

4— Urte honetako otsailan jakinarazi zigutenez, "Txarra"k arrazoi pertsonalak direla medio Euskal Preso Kolektibotik at gelditzea erabaki zuela.

Honen ondorio zuzenez, Amnistiaren Aldeko Batzordea aipatutako kolektiboaren bozeramale izanez, "Txarra"ren bozeramale izateko inolako gaitasunik gabe uzten gaitu bere erabakiak.

Ramon Bidabururi hainbat urtetako militantzia aitortzen diogu eta errespetatzen ere bere erabaki pertsonalak, nahiz eta berarekin bat ez egon Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren hildoarekin ez bait dago.

Egibarrek jaurtitako gezurrek ez dute inolako mesederrik egiten Euskal Herriari.

ARRASATEKO AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEA

Zergatik ez Zutik ATBn?

Hauteskundeetarako programa berezia dela eta, egun batzuk direla, dei bat jaso genuen ATBtik bertara hurbiltzeko gure parte hartzeaz hitzegiteko.

Gure postura emateko eguna eta ordua ere jarri ziren. Imaginatuko duzue gure harridura handik laister beste kontrako dei bat jaso genuenean. Etxe honetan guri espaziorik ez ematea erabaki zenutela, ez genuelako listarik aurkezten eta gure botoa HBrentzat eskatzen genuelako, hau dela eta gure postura ordezkaturata zegoela.

Egia da zerrendarik ez dugula aurkezten hauteskunde hauetarako eta honen zergatia azaltzea nahi dugu.

Orain arte beti aurkeztu izan ditugu zerrenda propioak interesgarria iruditzen zitzaigulako hauteskunde kanpainak eskeintzen ditugu "irritutxoak" aprobetxatzea, gure iritzia ahal denik eta jende kopuru handienari zabaltzeko, eta gero gure zerrendak erretiratu, beste norbaitentzat botoa eskatzen dugunean.

Baina azkenengo hauteskundeetan izandako aldaketa batek, kanpaina egin ondoren, zerrenda erretiratu ahal izateko debekua eta hau egin ezkerro isun milonarioak ordaindu beharra. Guk bezalako alderdi batek ezin eta ordaindu nahi ez dituen isunak, (are gehiago guretzako hain garrantzitsua ez den zerbaitegatik), gure jokaera aldatzera behartu gaitu, hau da, zerrendak ez aurkeztera.

Bestalde, ez dugu HBren iritzi berdina ez hauteskunde eta ezta ere beste hainbat gairi buruz, momentu honetan beraiantzat botua eskatu arren eta horregaitik ez gara sentitzen alderdi honegatik ordezkatuak.

Azkenik, sarritan entzun

dugu ATB ez dela beste telebista instituzionalak bezalako, herrikoia eta alternatiboa dela, kasu honetan ez dugu oso garbi ikusten diferentzia.

Ez dugu ulertzen ez eta onartzen zuen erabakia.

ARRASATEKO ZUTIK

Abertzaleok galdu gau

Kongresu-Senaturako emaitzek hori diote, nondik nora?

1- Komunitate autonomo mailan PSOE agertu da irabazle, beraz, EAJk nahiz eta boto kopuruari begiratuta igoera polita euki, kualitatiboki ikusita galdu egin du betidanik eurak euki dabien hegemonia edo lehentasuna, hau da, txirriindulari exenplo bat jarrita, liderraren maillot horria galdu egin du.

Oso garrantzitsua zen alderdi abertzale batek maillot hori eukitzea.

2- Gizpuzkoan Herri Batasunak bere lehentasuna galdu egin dau eta Eusko Alkartasunak gehi Euskal Ezkerraren proiektua gizarteak ez dau bereganatu, horrela, berriz ere atzerriko alderdi bat jarri zai-

gu aurrean, hau da, PSOEek maillot larua eta mendietako maillota ere lortu du.

3- Araban, eta exenplo bera erabilita, PSOEek betik irabazi dauen "metas volantes"en premia, oraingoan ere irabazi egin dabe eta beraz, tinkotu egin dituzte euren aukerak.

4- Aurreko hirurak ez dira gutxi eta PPK buruko pelotoian sartzea lortu du.

5- Hor dauz emaitzak, estatu mailako partiduek 11 diputatu, eta alderantziz abertzaleek 8.

6- Areagotuz, Nafarroako emaitzak okeragoak dira, zergaitik abertzaleok kanpoan gelditu gara, hau da, kontroletik kanpo iritsi gara helmugarra.

7- Nafarroako emaitzak komunitate Autonomoari gehituta, balantzea guztiz desorekatua da: 16 diputatu estatu mailako partiduek eta 8 diputatu euskal partiduek.

Azkenean erreflexio bi:

1- Abertzale bezala nor izan beharko da geure artean aldaketa baikor bat agertzeko? Alderdi handiena? Erdikoa? Ala txikiena?

2- Bestela, autodeterminazioz nola?

**PEDRO MARI RUIZ DE AZUA
JAVIER BENGOA**

ARKOren oharrak

Joseba Egibarrek ATBko Hauteskunde programan Ramon Bidaburu "Txarra"ri buruz esan zituenak salatzeke Arrasateko Amnistiaren aldeko Batzordeak igorritako gutun hau, irakurri gabe gai aipatu bakarrik egin genuen informatiboan, aurkezlearen hitzetan komunikaturik ez delako jartzen, eta aldizkarian argitaratzeko berandu zelako. Horrez gain, hauteskunde kanpainen geundenez, horretarako berariaz jarritako tarteetan izan ezik alderdien edo alderdiei buruzko testurik kanpainen zehar ez argitaratzeko erabakia hartua eta aditzera emana zuen ARKoko Zuzendaritza Batzordeak 93ko maiatzak 28ko ARRASATE PRESSEN.

Egia da Zutik-i lehenik hauteskundetako tartea eskaini egin zitzaiola, erabakia hartuta zegoen arren barruko gaizki-ulertze baten erruz.

HB eta Zutik gauza bera ez direla badakigun arren, aukera hori herrian ordezkari izan eta zerrenda aurkezten zuten taldeei bakarrik ematea erabaki zen, nolabait mugatu behar eta, eta horrela, bi alderdi izan arren koalizioan aurkeztu direnei ere aukera bakarria eman zaie.

Nola ikusten duzu selektibitatea?



Zuriñe Altube
San Viatorreko ikaslea
(17 urte)

Nik oso zaila ikusten dut. Azterketa batean asko jokatzen dugu. Aste honetako klaseetan piska bat prestatzen ari gara, baina hala ere, zorte asko beharko dugu, materia gehiegi sartzen da eta.



Sergio Olabarrieta
San Viatorreko ikaslea
(18 urte)

Nahiko zaila, gai asko agertzen dira eta. Gainera, denbora gutxi izan dugu ikasteko. Aprobatzeko itxaropena behintzat ez dugu galtzen.




Ibane Abasolo
San Viatorreko ikaslea
(17 urte)

Nahiko gaizki, materia guztia sartzen da eta azken finean ikusi dugu ezinezkoa dela dena ikastea. Ea irakasleek nola zuzentzen dituzten azterketak...




Sergio Azkarate
San Viatorreko ikaslea
(18 urte)

Zaila, oso zaila, azterketa desberdinak dira eta ez dakit, zorte asko behar da baina horretaz gain, ikasi ere asko egin behar da.




Manolo Boisa
Institutuko ikaslea
(17 urte)

Egia esan ez zait azterketa ona iruditzen. Errazagoa izan beharko litzateke. BBBn nota onak dituenari azterketa horregatik media bakua gera dakioke, ez da justua.



Mariela Vaquero
Institutuko ikaslea
(18 urte)

Nire stez azterketa horrek ez du ezertarako balio. Nahiko zaila izaten da UBI aprobatazea, gero azterketa hau egin beharra izateko.



Angel Gomez
Institutuko ikaslea
(18 urte)

Azterketa batean dena jokatzen dugu eta nota ere behertu egiten zaigu. Azterketa hori egitekotan, beste modu batean egin beharko litzateke.



Elisea Bellido
Institutuko ikaslea
(19 urte)

Beldur apur bat ematen dit, denetatik sartzen da azterketa horretan eta ia ezinezkoa da dena ikastea.



- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Jostailuak

ZARRAOA
EL ARCA DE NOE

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Iguatorialdia 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 71 44 52
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziazak 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitate (Iberduero) 79 05 81
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarteak 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 11
 Egunez: Amezuza. Santa Marina.
 Gauez: Mozoa. Pedro Deunaren.

Larunbata 12
 Egunez: Ruiz. Maala.
 Gauez: Camacho. Oxirondo.

Igandea 13
 Egunez: Morales. San Andres.
 Gauez: Camacho. Oxirondo.

Astelehena 14
 Egunez: Azkoaga. Ferrerias.
 Gauez: Puy. Barrenkale.

Asteartea 15
 Egunez: Español. Iturriotz.
 Gauez: Guallar. San Antonio.


Asteazkena 16
 Egunez: Irizar. Erguin.
 Gauez: Irizar. Erguin.

Osteguna 17
 Egunez: Ruiz. Maala.
 Gauez: Ruiz. Maala.

11 OSTIRALA

ZINEA
 "Un lugar en el mundo" (7,10)

24 ORDU IGERIKETAN
 24 orduko igeriketa. Hasiera:
 eguerdiko 12etan. Amaiera:
 larunbatean, eguerdiko
 12etan.



LUIS ECEIZA IKASTE-TXEAREN ASTEA

Eskoriatzako Luis Eceiza ikastetxearen astea burutuko da ekainaren 11tik 19ra bitartean. Datorren astelehenetik ostiralera bitartean joku desberdinak egingo dira: ping-pong, xake, futbolina eta "Cuatro en raya" txapelketak. Ekainak 18, eskolaren eguna ospatuko da eta hainbat ekintza egongo dira: pailazoak, eskulenen tailerrak, txapen tailerrak eta abar. Larunbatean, berriz, asteari bukaera emateko txapelketen finalak, guraso eta ikasleen artean kirol desafioak, eskulenen erakusketa... eta 9.30etan ikastetxeko jangelan guraso eta irakasleen lagunarteko afaria.

12 LARUNBATA

ZINEA
 "Un lugar en el mundo"
 (5,7.30,10)

KULTUR ASTEA: CORAZON DE ENCINA
 Futbito txapelketa, goizeko 10etan; play back lehiaketa, eguerdiko 12etan; haur jolasak, arratsaldeko 3etan; Folk jaialdia, arratsaldeko 5etan; bazkideen afaria, gaueko 9.30etan. Musakolako Kiroldegian.

JUBILATUEN BIDAIA
 Jubilatuen bidaia: Errioxako Arnedillo herrira. Izenematea Iturbide egoitza.

TENIS TXAPELKETA
 Tenis txapelketaren hasiera. Bi kategoria desberdin. Prezioa: 500 PTA lehen kategorian, 1.000 PTA bigarrenean. Musakolako Kiroldegian.

ROCK KONTZERTUA
 Ume Gaiztuak, EH Sukarra, Anticuerpos eta Parabellum taldeen rock kontzertua. Gaueko 9etan. Monterron parkean. AEKk antolatuta.

KULTUR ASTEA: CORAZON DE ENCINA

Corazon de Encina elkarteak datorren igandean, ekainaren 13an bukatuko du pasa den astelehenen hasi zuen hirugarren kultur astea. Bihar larunbata, jai berezia eukiko dute Musakolako Kiroldegian. Eguerdiko 12etatik aurrera play back jaialdia egongo da eta eguerdiko 1etan erregina eta ohorezko damak aukeratuko dira. Arratsalde partean folk jaialdia eukiko dute 5etatik aurrera. Eta gaueko 9.30etan bazkideen arteko afaria. Igandean bukatuko da kultur astea eta astean zehar burututako txapelketen finalak jokatu dira: mus, kuartrola...

13 IGANDEA

ZINEA
 "Su distinguida señoría"
 (5,7.30,10)

ZAHARREN ASTEA
 Zaharren astea: Errioxako Arnedillo bidaia. Informazio gehiago Iturbide Egoitza.

KULTUR ASTEA: CORAZON DE ENCINA
 Kuartrola eta mus txapelketaren finalak, arratsaldeko 3.30etan; sari banaketa, 7etan. Elkartearen zentruan.

PINTURA ERAKUSKETA
 Mijana pintorearen pintura erakusketa ikusteko azken eguna. Monterronen.

MENDI IRTEERA
 Villamardone-Valdereio mendi irteera. Irteera: goizeko 7etan Garibaitik. Izenematea Besaide mendizale elkartearen, 7.30etatik 8.30etara.

“Oraintxe bertan ekonomiaren atzerakada ezusteko bat gertatu ez balitz, langabeziako tasa altuek eta efikaziaz kontrolatu ez den inflazioak eragina, beharbada MCCko tentsioak txikiagoak izango ziren. (...) Gainera, kooperatibosmoa ez da euforia eta irabazi-garaietarako bakarrik egin. Lana eta jabegoa pertsona beren eskuetan jartzerakoan, denboran zehar gerta zitezkeen egoera kritikoetan ere pentsatuko zen seguru asko”.

Jose Mari Ormaetxeak



“Krisi egoeren aurrean, gure moral kolektiboa behera etortzea gerta daiteke; eta jarrera derrotistak, hiperkritikoak, desesperantzazkoak edo destinu beltzaren onarpenezkoak ulergarri ere badiren arren, jokaera horiek ez dute sekula ezer konpondu. (...) Krisitik irteteko, gure superbizipenerako eta hitz baten esanda, garapenerako gure laguntzarik handiena, behar diren aldaketak geuk onartzea da eta horiek ahal den azkarren eta erarik eraginkorrean lortzeko gure laguntza aktibo eta erresponsiblea. (...) MCC Korporazioa ez da kapritxo edo moda bat, tamaina egokiak eta eskala-ekonomiak bilatzeko kontzentrazio enpresarialeko beharrentzako erantzun estrategikoa izan nahi du alde batetik, eta negozio bakoitzaren banakako autonomiarentzako erantzun bat bestetik, izan ere, negozio, kooperatiba edo sektore bakoitzak justifikatu behar du bere burua.”

Javier Salaberriak



“Euskaraz idatzitako herri-prentsak 1988aren hondarretan hartu zuen indarra, Arrasate Press astekariaren jaiotzarekin, bera izan baitzen aipaturiko ezaugarri horiek euskal prentsari ekarri dizkiona. Geroztik, hogeita hamar aldizkari inguru jaio dira Euskal Herrian”.

Joxe Aranzabalek



Zer arazo dute baserritarrek pinua dela eta?

1 988-89 urteetan pinua igo egin zen 9.500 edo 10.000ko prezioa egiteraino, baina 1989ko sutearen ondorenean lehen jaitsiera bat izan zen. Suak kaltetu egin zuen egur asko, eta horren ondorioz, denbora baino lehenago kendu behar izan ziren asko, eta logikoa da prezioa. Baina harrezkero, goitik behera joan dira prezioak, lau urtetan.



Balentin Gabilondo
EHNE sindikatukoa

Faktore asko daude honetan. Kanpotik ekarritako egurra, Frantziako Landetatik ekarritako pinu maritimoak eta beste batzuk arazoaren alde bat dira. Nahiz eta badirudien, baserritarren ustetan, kanpotik ekartzeak egin duela kaltea, kasu honetan hori ez da egia, partetxo batean baino. Industria txikiaren krisiak ekarri du arazoa, zerrategi txikiak, enbalajekoak, egurra transformatzeko enpresa asko itxi beharrak asko kaltetu du egurzalea, bai baserritarrak edo propietario forestalak. Industria hauek behera jo dutenean, askok utzi dute 5 edo 6 milioiko zorra. Baserritarrek, kontraturik gabe, paperik gabe, ezer gabe egin dituzte gauzak eta. Deba Garaiko enpresa baten kasuan, Egurki, 600-700 milioi pezetako zorrak utzi ditu.

Orain, EHNETik plantazioetan dibertsifikazio baten bidetik goaz. Pinuaren monokultiboak ekarri du kaltea, eta elurrak eta direnean, pinua asko galtzen da. Azken elurteak 600-900 milioiko kaltea ekarri du. Gu ez gaude pinu insignis-aren aurka, baina monokultiboaren alde ere ez. Pago eta haritzak ere sartu behar dira, eta EHNERen aldetik, erdia baino gehiago, insignis-a ez diren arbolak sartzan ari dira baserritarrak. Aldaketa dator pentsakeran.



- Umeentzako klaseak
- H.E.O.ko azterketarako prestatzeko klaseak
- Hizkuntzak ikasteko klaseak orokorrean

93-94 IKASTURTERAKO MATRIKULA IREKITA DAGO !

Hurbil zaitez gure bulegoetara

ARRASATE: Araba Etorb., 4 Tfnoak: 79 01 32 / 79 65 54
OÑATI: Olakua, 14 Tfnoa: 71 60 00



IRAKASLE ESKOLA
E s k o r i a t z a
G i p u z k o a

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:

1993-94 ikasturterako aurreinskripzio-epa zabalik dagoela.

Espezialitateak:


- Haur-Eskola
- Euskal Filologia
- Ingeles Filologia

Informazioa

Irakasle Eskola. Tfnoa: (943) 71 41 57

Eroskiren irabaziak

Eroski taldeak 1992. urteko emaitzen berri eman zuen joan den astean. Oso balantze positiboa egin zuten taldeko arduradunek, 3.697 milioi PTako irabazi garbiak lortu baitzituzten, %23,3ko hazkundera aurreko urtearekin konparatuta. Beste arrakasta faktore bat, Eroski marka daukaten produktuen harrera ona da, saltzen den guztiaren %20 baitira. Bestetik, The Price Company etxe amerikarrekin harremanak hasi ditu Eroskik, banaketa sektorea Estatu espainiarrean zabaltzeko, Price almazenen bitartez.



JOSEBA

Hauteskunde eguna

Normaltasun osoz bizi izan genuen hauteskunde eguna. San Andres auzoan, berari ez zegokion mahai batean botoa utzi zuen emakumearena da jaso genuen anekdota bakarra. Boto zenbaketa gaueko 11etarako amaituta zegoen udaletxean.

Irakaskuntza ertaina euskaraz

Udaleko Hezkuntza sailak eta AEDk motibatze kanpaina ari dira OHOk

8. mailako ikasleen artean, irakaskuntza ertainean euskaraz ikasten segitu dezaten. Erdarazko irakaskuntza (A eredu) ia desagertuta dago OHOn,

baina irakaskuntza ertainean % 51k ikasten du erdaraz, eta joera hori aldatzea da kanpainaren helburua. 360 gaztetxori zuzentzen zaio kanpaina.

Turismoa Deba Garaian

Deba Garaian turismoa sustatzeko plan integrala martxan jarri du Mankomunitateak. Turismoaren irudi tradizionala hondartza eta eguzkiari lotutakoa da. Hondartzarik ez dago Deba Garaian, jakina, baina gaur egungo turista edo bisitariak beste zerbait apreziatzen du, hain zuzen ere, alde monumental (arte eta historia), ingurugiroa eta kirol-baliabideak. Arrasateren kasuan, industria bisitatzera datozenak inguruan gera daitezen azpiegitura prestatzea da helburuetako bat, gaur egun gehienek Bilbon hotela hartzea nahiago dutenez. Oraingoz, ikerketa bat egiten ari dira, Lourdes Romanoren gidaritzapean. Aztertzen ari diren iniziatiben artean, Gatzagan hotel bat egiteko aukera dago.

V.O. VERSION ORIGINAL

Alava Generala, 16 GASTEIZ Tfnoa: (945) 13 33 39

V.O. JEANS

Postas, 5 GASTEIZ Tfnoa: (945) 23 24 15

MANGO

Postas, 5 GASTEIZ
Tfnoa: (945) 23 04 48



NEKANE SAN MIGEL *

Epaileak politikan

Goian adierazitako gaiari buruz hitz batzuk idazteko eskakizuna jaso nuenean eta haserari bueltak ematen ari nintzaiola, Almeida abokatuaren hitz batzuek gordezten duten arrazoia etorri da laguntza pixkat ematera: Garzonen saltoari buruz galdezten zaionean, erantzun hauxe eman zuen: "Politika alde guztietan egiten da eta berak (Garzonek) instituzioetatik praktikatzen jarraitzeko eskubide osoa dauka...".

Potere Judizialaren Lege Organikoak markatzen du Partidu Politiko batetako partaide izateko debekua, baita edozein kargu politiko (Estatuko zein Autonomietakoa) hartu ahal izatekoa ere. Baina hori epaile zaren bitartean, zeren lege berak eskaintzen ditu hainbat modu batetik bestera pasatzeko eta berriz ere lehengoratu bueltatzeko.

Dena den, eta lehen aipaturiko esaldiaren arabera, politika alde guztietan egiten da. Bestela, eta berehala denori burura etortzen zaizkigun adibideak datoz: Ez al da politikoa "minifaldaren" sententzia?... edo eta Inestrillas absolbatu duena... edo "emakumea erabiltzeko zerbait zela" jasotzen zuen Asturiasko sententzia... edo eta azkenengo astetan Zaragozako Entzutegiak emanikoa, umeei sexoa ukatuz...?...

Gure lan honetan, eta Demokrazia formalaren oinarriak beteaz, lehen lejislatiboak araututako aplikatu eta interpretatzea da potere judizialaren eginkizun nagusia. Baina ezin da ukatu, interpretazio hori gehienetan ideologikoa dela, batez ere, konstituzioan edo beste araudietan defendagarri azaltzen diren balore desberdinak lehian jarritz gero...

orduan bai epaile bakoitzaren pentsamoldeak usaintzen direla epaia irakurtzerakoan... zeren eta lehia horretan nahitezkoa egiten zaigu aukera, eta bi edo hiru balore horien artean bati pisu gehiago ematea, argi da aukera ideologikoa dela, eta neurri berdinean, politikoa.

Ohartxo hauek irakurtzen dituzuenok, ez duzue, segurutik, inongo zalantzarik izango irakurketa honi buruz, baina oraindik ere epaile askoren ustea oso da ezberdina, politika besteek egiten baitute eurentzat: Ez omen da politika betiko (eta hau esaterakoan denok dakizue zertaz ari naizen) balore eta balorazioak era berean, defenditzea, politika bestea omen da bakarrik: lege bera aplikatuz, beste oinarria ere kontutan hartzea: berdintasuna, askatasuna, hizkuntzen erabilera, inor erruduntzat ez ematea frogatu arte, e.b.... Komunikabideetara ateratzen diren epaiak, arlo gehienetan bezala, dexente pasatzen direnak dira, baina azaltzen dizuedana, Epaitegira zuzendu beharra izan duenak bere larruan frogatu dezake eta kontatuko du. Hainbat lege aldatu beharrekoak direla argi dago, baina daudenak aplikatzerakoan oinarri horiek kontutan hartuta ibiliko bagina beti, oso besteak izanen lirakeke ondorio asko eta asko.

* EPAILEA

LUIS FERNANDEZ

USTEAK USTE

ADARRAK

Niri ez zaizkit zezenketak gustatzen, baina benetan gogaitzen naue-na, bene-benetan jasaten ez dudana zezenketen aurkako paranoia da. Bergarako Pazkuetan idisko batzuk atera behar zituztela eta, antolatutako "mobida" horri ez diot bururik ez hankarik ikusten. Gainera, zezenketen aurkakoak, "zezenen aldeko taldea" ei dira. Bistan dago ez dutela buru askorekin jarri izena: zezenketarik ez balego, "lidia" arrazako zezenak desagertu egingo lirakeke; estintzioa, alegia. Animalien torturaren argudioa ere, erdipurdikoa iruditzen zait. Zezenak tormentoa jasaten du azken orduan, baina ordura arte, libre bizi izan da zelaian, pentsua zer den jakin barik. Bizimodu tristeagoa dauka oilategiko edozein oilok, kaiola batean sartuta bizitza osoan arrautzak jarri ta jarri, eguzki-argirik ikusi barik inoiz. Hala ere, ez dut uste *toreofobo* guztiak begetarianoak izango direnik. Eta bueno, espagnolismoaren aitzakia ere aipatzen dute beste askok, Lekeitioko antzarakin edo Zubietako oiloekin nahikoa ez bagenu bezala... Mesedez, adarrak ez jo. Zezenketak gogoko ez dituenak, ez dadila joan eta punto.


Zurgin Kanto, 2
Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

PAZI-OLA SA
GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2
ARRASATE Tfnoa 79 29 94

Zinegotzien banaketa D'Hondt legearen arabera

	PSE-EE	HB	EAJ	EA-EUE	PP	IU
Botoak	3.712 ¹	3.186 ²	2.480 ³	2.115 ⁴	1.034 ¹¹	794 ¹⁵
: 2	1.856 ⁵	1.593 ⁶	1.240 ⁷	1.057 ¹⁰	517	397
: 3	1.237,3 ⁸	1062 ⁹	826,6 ¹³	705 ¹⁷		
: 4	928 ¹²	796,5 ¹⁴	620 ¹⁹	528,7		
: 5	742,4 ¹⁶	637,2 ¹⁸	496			
: 6	617 ²⁰	531 ²¹				
: 7	530,2	455,1				



Boto abertzalea geldi geratu zen igandeko bozketan

Ekainaren 6ko hauteskundeek Arrasaten utzitako emaitzak irakurketa garbia dauka: boto abertzalea, gorabehera txikiekin, geldi geratu den artean, alderdi estatalek asko igo dute. PSE-EE izan da indar nagusia, eta PPK eta IUk ere indartsu egin dute gorantz.

Datu horiek ezin daitezke zuzenean udal hauteskunde batzuetara trasladatu, baina irudi nahiko adierazgarri bat emateko balio dute behintzat. Kasu horretan PPK eta IUk ere zinegotzia lortuko lukete, EAJ eta EUeren kaltetan; baina HB eta PSE-EE 6rekin geratuko lirarteke orain bezala. Nahiz eta sozialistek 526 botoren aldea izan HBren gainetik, D'Hondt legearen arabera, parra daude zinegotzietan. Boto diferentzia 5 boto zabalagoa izan balitz, 7 zinegotzi lituzkete sozialistek eta 5 HBk, 21. zinegotzia alderdi batek bestera pasatuko litzatekeelako (ikus goiko taula). [D'Hondt legea: talde bakoitzak duen boto kopurua zatitu egiten da 1, 2, 3 eta segidako zifrekin; eta ostean koziante edo emaitza guztien arabera handienetik

hasita ematen dira eskainuak].

Aipagarria da, bestetik, ARRASATE PRESSEko orri bereziak lortutako arrakasta. Kaleratutako 3.000 aleak oso goiz agortu ziren, eta gutxitxo ere izan ziren.

Senatuko emaitzak

Senaturako, ordena bera izan zen emaitzetan: 1. Mario Onaindia (PSE-EE, 3.592 botorekin), 2. Ana Urtxuegia (PSE-EE, 3.518), 3. Gemma Zabaleta (PSE-EE, 3.508) eta 4. Jose Luis Elkoro (HB, 3.118). Hain zuzen ere, Gipuzkoako hautatutako lau senatoreak dira lau botatuenak Arrasaten, eta ordena berean.

EA-EUE koalizioaren senadoregaien artean, EAko Esther Larrañaga arrasatearrak EUEko Kepa Aulestia bere koalizioikideak baino gutxiago izan zituen. Boto zuri eta baliogabe asko izan ziren senaturako: 733 (% 5,26). Jende asko nahastu egin zen, eta ez zekien papeletan hiru izen konkretu markatu behar zirenik.

Euskara kanpaina

Hauteskunde kanpaina euskara nola erabili zuten neurtu du AEDk. Kanpaina aurretik, alderdi abertzaleei euskarari lehentasuna emateko eskatu zien AEDk, eta estataleki presentzia duina eskaintzeko bederen. Azterketa egin eta gero, oro har material gutxi egon dela ikusi dute AEDkoek, eta gainera, hauteskunde mota kontuan harturik, euskararen erabilera herriko ordezkarien gain egon beharrean, gorago dago eta zailagoa da eraginkor izatea euskararen aldeko sentsibilizazioan. Datu aipagarrien artean, PSOE eta PPK euskara alor testimonialean uzten dutela, eta EA-EUE eta EAJk mitinetan euskara erabili zutela batipat. Azterketaren emaitzak alderdiekin komentatuko ditu AEDk.

Udaleko gazteria sailaren urteroko dirulaguntzak

Taldea	PTA
Besaide	335.000
Al-Andalus	100.000
Parrokiako gazteak ..	200.000
Gizaizpi Alai taldea .	100.000
Antimilitaristak	500.000
Gazte Mobida	400.000
Uribarriko gazteak ...	100.000
Orkatz Eskaut taldea	425.000
Uribeko Gazte Kluba .	100.000
Galtzagorri taldea	325.000
SS-77 (maketarako) ...	80.000

ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99


Basabe jatetxea

Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Industrialdea
ARETXABALETA

Tfnoak: 79 91 84 / 77 07 94

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE



Zaldibarko ikastetxean daude kokatuta Lanbide Hastapeneko ikastaroak.

Lanbide Hastapena, enplegua lortzeko bidean lehen aukera

Mankomunitateak bultzatutako Lanbide Hastapen ikastaroak urte hasieratik urte amaierarakoak izan beharrean, ikasturte arruntetara moldatuko dira bi urtetan. Hori dela eta, azaroan hasiko da hurrengo ikasturtea eta bertan izena emateko matrikula zabalik dago jadanik, uztailearen 15a arte. Bi opzio egongo dira, batek elektrizitatea, harotz-lana eta mekanika ikasteko; eta beste adarrean Sukaldaritza, artisaugintza eta ofimatika ikasteko. Aukera dago, gainera, euskaraz edo erdaraz ikasteko, Zaldibarko ikastetxean dauden irakasle guztiak euskaldunak diren ezkerero.

Eskolarik gabe dauden 16-17 urteko gazteei zuzenduta daude ikastaro hauek, eta hurrengo urtean Heziketa Profesionalean espezializazioa lantzeko aukera izango dute. Ikastaro hauek subentzionatuta daude eta lan-gabezia dauden gazteei daude zuzenduta.

Koldo Azkoitiaren Mankomunitateko formazio arloko arduradunaren esanetan, heziketa programa hauetatik pasatzen diren gazteek lan aukera nahiko politak dituzte. 1991ko ikasleei jarraipena egin ondoren, %30 ikasitako lanbide berean enplegatuta dagoela ikusi dute, eta %10 beste lanbideren batean.

Aramaioko zaharrak Arrasatera

Aramaioko pertsona nagusiek Arrasateko Iturbideko zaharren egoitzan egoteko aukera izango dute hemendik aurrera. Zaharren egoitzek Foru Aldundien laguntzekin funtzionatzen dute, eta hortaz, Arrasatekoan gipuzkoarrak baino ez lirateke egon behar. Hala ere, kontuan harturik Aramaion ez daukatela egoitzarik edo Arabako Diputazioak ez duela baliabiderik jartzen, Udalak aramaiotarrak Iturbiden sar daitezzen baimena eman du, udal bakoitzak bere herriko egoitzetan egon daitezkeen %10a aukeratzeko eskubi-dea daukanez gero.

Meatzerrekako isurtegia

Meatzerrekako isurtegi edo erretegia ixteko agindua eman du Udalak. Epeleko hondakin isurtegi berria ireki denetik, kontrol eskaseko herriko gainerako isurtegiak ixtea da helburua, eta Meatzerrekakoari 15 eguneko epea jarri zaio.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



Musakolako Sailunte plaza konpontzen egingo da inbertsiorik handiena.

Auzo batzordeak 20,7 milioi inbertituko ditu

Udaleko auzo batzordeak auzorik auzo aurten egin beharreko inbertsioak onartu ditu, guztira 20,7 milioi PTako dirutza. Hirigintza konponketak dira gehienak. Adibidez: Altamirako atzekaldea konpontzeko, 1,8 milioi PTA; Uribarritik Erguinerako eskailerak konpontzea, 3,2 milioi PTA; Musakolako Sailunte plazan, 3,9 milioi PTA; San Andres auzoan San Josepe parkean 500.000 PTA., eta Santamainako espaloi eta eskailerak konponketetan, 2,5 milioi PTA.

Baserri auzoetan ere inbertsio ugari egingo da. Bedoña eta Garagartzan auzo-etxea konponduko da, eta Uribarri baserri auzoan elizarako sarrera arreglatu behar da

(1.020.000 PTA). Mietzerrekan iturri bat jarriko da (300.000 PTA), eta Udalan kanpa txukundu (550.000 PTA). Horrez gain, baserri auzoetan zabor kontainerrak eta buzoiak jartzeko 800.000 PTA inbertituko dira.

Gesalibarren, bertako antena konponduko da (1,3 milioi PTA), kate batzuk hartzeko zailtasunak daudenez. ATB, adibidez, nahiko kaskar ikusten da Gesalibarren.

Aurtengo aurrekontuak onartu ziren pleanoan PSOEk gogor kritikatu zuen auzo batzordeko dirua banatzeko sistema, biztanle kopurua ei delako erabiltzen den irizpidea. Gainerako talde politikoek ukatu egin zuten hori hala denik, eta datuak eman zituzten.

Bake epaitegi eta epaile berriak

Arrasateko Bake-Epaitegia lekuz aldatzeko egoitza berria egokitzen pentsatzen ari da Udala. Gaur egun, Aldaigainen dago Bake-Epaitegia; kanposantuaren gainean, eta hiri erdialdera ekartzea da asmoa, Zuloaga kaleko 6. zenbakian dagoen pisu batera. Bestetik, bake epailea bera aldatzeko garaia ere iritsi da. Ordezkoa izendatzeko, izenemate epea zabalik dago ekainean zehar udaletxean, eta aurkeztu nahi duenak bertara jo besterik ez du.

10.000 PTako bilete faltsuak

San Andres auzoko Dr. Bañez kaleko denda batean 10.000 PTako bilete faltsua detektatu ditu Ertzaintzak. Beste dendarietako faltsuak direla igartzeko kontutan hartu behar dituzten gauzak honako hauek dira: faltsuak ez dute "uraren marka" deritzona ezta erreliebean eta hatzamarrekin igerri daitekeen metalezko filamentoa horizontala ere.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



San Viator Txikiko hiru taldek Arabako Barria herrian eta biga- bidai desberdinak egin dituzte rren mailakoak, Nafarroako Bei- maiatzean. Haur hezkuntzakoak ren. Hiru taldeek primeran pasa- Elosuako aterpetxean egon dira tu dute. Argazkirako, gaztetxoe- hiru egunez. Lehen mailakoak nak aukeratu ditugu.



AEDko EKIN emakume gute. Baina bidaiak pena taldeko 22 emakume merezi izan du: museoak, Londresen izan dira as- elizak, Oxford, herri des- tebetez. Bidaiatik neka- berdinak... bisitatu dituz- tuta iritsi direla esan di- te.




Gipuzkoako Bide Heziketan **Kortabarria Garaik** S. F. X. ikastolako hiru bigarrena eta **Veronica** ikasleek jaso dute saria: **Merchan Perezek** accesita. **Ainhoa Vitoria Mondra-** Euskadiko lehiaketara **gon**ek lehen saria, **Idoia** pasatuko dira. Zorte on!



Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruko 32 emakume Italiian egon dira astebetzez. Canes, Venecia, Gerona, Florencia, Sena, Montecarlo... eta itinerariotik kanpoko toki ugari bisitatu eta gero, bueltan ditugu herrian.

**Elektroinjekzio
Zerbitzua**



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

Memesa
79 42 22

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

IZEN PROPIOAK



Erguingo herri eskolako zortzigarren mailako ikasleak Mallorcako Las Palmasen egon dira astebetez. Kostaldeko eguraldiaz gozatu eta

irlako bizitza eta ohiturak ezagutzeko aukera paregabea euki dute. Jadanik bueltan ditugu, eguneroko klaseetan.

Maiatzaren 23an Bilboko Astoria antzokian kulturismoko txapelketa egin zen. Arrasateko *Beti-Ona* gimnasiotik **Fidel Bedia** aurkeztu zen eta bigarren postuan geratu zen Junior kategorian. Zorionak eta segi entrenatzen!



● Pasa den maiatzaren 30ean burututako duatlon lehiaketan **Jose Galan** arrasatearrak lehen postua lortu zuen eta ordubete eta 36 minututan egin zituen oinezko 15 kilometro eta bizikletaz egin beharreko 40 kilometro. Jose Galanen semea, **Frantzisko Galan**, 12 urte, bigarren postuan geratu zen alevin mailan.

● San Viatorren eginiko idazlan lehiaketa desberdinetan honako hauek izan dira irabazleak: **Ekain Velez de Mendizabalek**, 17 urte, A multzoko narratibako lehen saria irabazi du. Eta B multzoan, **Ibane Abasolok**, 17 urte, olerkian; **Joxe Otadui**k, 17 urte, narratiban eta **Maite Retolazak**, 18 urte, bertso-paperan.

● **Jon Zuazabeitia**, orain arte Udaleko Euskara-ren hitzarmen teknikaria izan da.



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

.....
ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA
.....



J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

LORAMENDI KIROLOAK

• Reebok

• Saucony

• Adidas


• Rombo

• Joma

• Ellesse

• John Smith

Gertu dauzkagu zuretzat
modelo berriak



Entrenamendua • Lehiaketa • Aisialdia

• Nike

• L.A.Gear

• Avia


• Asics

• Rox

• Converse

• Mito

Maiatzaren 1a Plaza ARRASATE Tfnoa: 79 97 24



KÖMMERLING
PVCzko leihogintza

Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE




Salterain

Ezagutu itzazu PVCren
bitartez gaur egun
eskura daukazun
leiho miresgarriak, ez
hotsik, ez berorik, ez
soinurik...

Aretxagazeta **ARRASATE** PRESS BERGARA elgoiBARREN **ERAZ** ...eta kitto!

Herri aldizkarien gehigarri berezia




Euskal Bizikleta 93

50 urte betetzen ditu Eibarko karrerak



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Jose Antonio Azpilikuetak, 50garren urteurrena ospatzeko egindako txartela.

Euskal Bizikleta 93, erronka berri bat.


Chioccioli, Fignon, Zulle, Ugrumov, Breukink, Madiot, Cabestany, Delgado, Bernard, Gorospe, Cubino, Mauri, Etxabe, Gaston, Ivanov, Chozas edo Rooks bezalako izen ezagunak Eibarko irteeran eta akaso bertan izango dira Bugno eta Argentin ere, Txirrindulari profesionalen tropeleko hamabost taldeko partaide. 70 miliotako aurrekontua. 882 kilometro bost etapetan banatuta, 3. mailako 9 mendate, 2. mailako 6 eta 1. mailako 3; tartean, Azurki gainaren nobedatea, bide estua eta aldapa gogorra, hirugarren etapako helmugatik 45 kilometrotara. Bada nobedade gehiago: tropela Bilbon sartzeko erronkari aurre egitea lehen etapan, Euskal Bizikleta lehen aldiz Nafarroara eramatea bigarrenan, azken etapa, eskuz-eskuzko pilota finala medio, arratsaldez burutu behar izatea, edo Arraten irabazten duen txirrindulariari 500.000 ptzako. sari berezia ematea.

Beraz, erronka berriei aurre eginez dator aurtengo Euskal Bizikleta, **50. URTEURRENA** betetzen duen lasterketa. Urtebetzea kontuan hartuta, antolatzaileek, txirrindulari hauen ahaleginaz aparte, gozagarri gehiago prestatu dituzte zaleentzat: argazki eta txirrin erakusketa Eibarko Udaletxean, txirrindularitzari buruzko hitzaldiak, Arraten irabazle izan diren gizon askoren bisita... eta Arrateko igoeraren historia jasotzen duen liburuaren argitaratzea Gabonak alderako. Eta, dirudienez, hurrengo urteetan bide beretik jarraitu nahi dute, ia ziurtzat ematen baita datorren urtean etapa bat Iparraldean bukatzea, Miarritzen hain zuzen ere.


Ekainaren 16tik 20ra Eibarren txirrinuaz hitz egingo da, eta ez Eibarren bakarrik, ETBren lanari esker, euskaldun askok etxetik edo auzoko tabernatik errepide ondotik bezain bizi ikusiko du txirrindularien ahalegina.

Onenak irabaz dezala!


1. Etapa




2. Etapa




3. Etapa



4. Etapa



5. Etapa



Argitaratzaileak: Aretxagazeta, Arrasate Press, Berrigara, Elgoibarren, Eraz, ...eta kitto! herri aldizkariak
 Erredaktoreak: Beñardo Kortabarria, Jose Luis Gorostegi.
 Maketatzailea: Jose Luis Gorostegi.
 Inprimategia: Gertu Koop. (Oñati).

Julian eta Mikel: oraina eta geroa

— Julian, 12 urte profesionalen artean, gauzak asko aldatu dira denbora horretan?

— Teknologiari dagokionez aldaketa handiak egon dira, baina bestela ez. Orain urte batzuk baino interes handiagoak daude, publizitateak gero eta garrantzi handiagoa dauka, telebista sartu da... baina oinarrian ez da aldaketa nabarmenik. Taldeetako aurrekontuek gorantz egin dute eta krisia hortxe igartzen da, orain ez baita posible etxe txiki batek garai bateko Reynolds edo BHK esaterako, talde bat ateratzea.

— **Telebista dela eta txirrindulariak pertsona ezagun bihurtu zarete, nola daramazue famaren presioa?**

Julian — Beno, nik urte asko daramatzat mundu honetan eta dagoeneko telebista edo prentsak dionak ez nau gehiegi arduratzen; Zarrak, berriz, zailtasunak izango ditu seguruen. Euskal txirrindularitzan oso garai ona bizi izan dugu, baina orain ematen du hutsune bat dagoela, eta badirudi bera izan daitekeela hutsune hori

bete dezakeen pertsona. Argi dago, zaletuek gogo hori dutela eta horregatik oso entzuna bihurtzen ari da Mikelen izena. Zarra gaztea da eta oso kualitate onak ditu, beraz gauzak lasai hartu eta jendeak esaten duenari kasurik ez egin, nik behintzat hori gomendatuko nioke.

Mikel — Arduraren antzeko zerbait sentitzen dut, baina paso egiten saiatzen naiz, jendeak dionaz ahazten. Eguneroko lana egin eta kitto, besterik ez. Baina ez da erraza, jendeak beti gehiago nahi duelako.

— **Euskal Bizikleta?**

J. — Asko aldatu da, orain itzuli modura antolatzen da eta normalean desgastea igartzen da egun batetik bestera. Era zaharrean, bi aldiz korritu dut bakarrik, eta ez zitzaidan ondoegi joan, Arroyo eta A. Fernandezek irabazi zuten.

M. — Niretzat egokiagoa da lasterketa orain dagoen moduan eta ez era zaharrean. Nahiz eta erlojuaren aurkako lasterketetan gaizki moldatu ez, zerbait gaxtagoa nahi dut. Edozein modutan, uste dut Girotik datozenen artetik



Txirrindulari ez ezik, lagun ere bai.

irtengo dela irabazlea, forma onean datozelako maila handiko txirrindulariak.

— **Parte hartzeko asmorik?**

J. — Ez dakit ziurtasunez, baina normalena litzateke.

M. — Espainiako itzulia bukatuta, Minguezek bi hilabete t'erdiko atsedendia eman dit, ondorioz ez dirudi Ordiziako klasikararte beste lasterketarik egingo dudarik. Dena dela, badakit antolatzaileek ni eraman nahi nautela eta presio lana egiten ari direla eta egingo dutela Amaya taldearen aurrean, baina printzipioz ez noa, gero azkenean ikusi egin behar.

— **Mikelek Espainiako itzulia aipatu du, balorazio ona egiten duzue?**

J. — Talde moduan ez dut uste Banestorentzat itzuli ona izan

zenik; pertsonalki nahiko ondo ibili naiz, neure mailan. Mikel ikusi nuen ondo, lehen buelta izateko beti ibili da aurrean, esperientzia apur bategaz gorago egongo zen.


M. — Beti ez naiz ibili aurrean eh! Julian nola ikusi dudan? ba...

J. — Nola ikusiko ninduen ba? beti atzean!

— **Aizue, asko hitzegiten ari da Euskadi Fundazioaz, Gorospe zuzendari, Zarrabeitia lider...**

J. — Ez dakit Euskadi Fundazioarenak aurrera egingo duen ala ez. Dena dela, niri dagokidanez, oraindik beste urtebete bizikleta gainean egiteko asmoa daukat. Ekipo berri bat egiteko, ekipo ona noski, fetxa hauetarako gauza gehienak eginda egon beharko lirateke.

Kafetegia
Taberna



- Pizzeria
- Plater konbinatuak
- Sandwichak
- Hanburesak

Berandu samar dabilzala uste dut.

M.— Horri buruz egin dute berba nirekin, baina berba bakarrik, gehiago ez. Momentuz, Amaya taldean oso gustora nago, ikusi egin behar taldeak jarraituko duen edo ez, baina momentuz ez daukat aldatzeko asmorik.

J.— Ekipo guztiek kontratatu nahi dute Zarra eta berarentzat hobe izango litzateke talde indartsu batean egotea. Jendearen aldetik, normala da Zarra Euskadiko taldean ikusi nahi izatea, baina berarentzat talde berri eta ezezagunean sartzea arriskutsua da, gaztea da oraindik eta horrelako taldean berak egin beharko luke guztia eta ardura osoa hartu.

— **Eta euskal txirrindularitza zaren etorkizunaz, zer diotazue?**

J.— Pazientzia behar da jende berria iritzeko, boladak daude eta. Tropelean gauden gehienok, orain 10-12 urteko txirrindulariak gara. Banaka batzuk pasa dira beranduago eta polito dabilza. Urteak urtera aldatzen dira gauzak, osasunak laguntzen duen edo ez, suertea, istripuak... gorabehera asko daude. Momentuz hor dago Indurain eta baliteke hemendik gutxira Zarra edo Garmendia ere hor izatea.

M.— Bai egia da, suertea behar da urte batean bai eta bestean ere ondo ibiltzeko.

Kasu nabarmenak gertatu dira, azkena Lazpiurrena, esperantza handia da, baina osasunak ez dio batere laguntzen.

— **Txirrindularitza ikusizun bilakatu da, nola ikusten duzue kazetarien lana?**

J.— Giroan nahiko ondo ari dira, eta komentarioak ere ez dira txarrak, nahiz eta idearik ez daukan bat tartean ibili. Espainiako itzuliko telebistako komentariak oso txarrak ziren, gero eta gutxiago gustatzen zaizkit, huts ugari egiten dute. Futboleak egiten duten bezala, laguntzeko ulertzen duen norbait eraman beharko lukete.

— **Eta zaletuekin zer moduz?**

J.— Pasatu egiten dira. Alde batetik ulertzekoa da, gu igaro baino 3 edo 4 ordu lehenago joaten baitira, bokadiloaz... aurrez telebistako komentariak éntzunda edo egunkariko deklarazioak irakurrita joaten dira... berotuta egoten dira gu iristen garenerako.

M.— Askotan lagundu barik traba egiten dute, aldamenen jarri, ura bota burutik behera, bidea estutu, ikurrinak edo pankartak aurpegian jarri, kolpeak eman... animatzea polita da, baina ez horrela. Jendea errepide bazterrean egon beharko litzateke edo muga gainetan eta bertatik animatu, zaletuen ohiuek benetan animatzen dute eta.

Lekukoa pasa eta hartzeko ordua



Batek 33 urte, besteak 23. Bat oraina izan den joanaldia da, bestea oraina den etorkizuna. Julian Gorospe bat, bestea Mikel Zarrabeitia.

Edonori gustatuko litzaioke, euskaldunon idoloa izatea, baina edonork ez du aukera hori. Deituak gutxi dira, baina Mikelek, aukera bakarrik ez: Mikel izan daiteke eta jadanik, da.

Julian azken ostikadak ematen ari da eta luzaroan gure ametsak egia bihurtu zorian izan gaituenak, laster, agur esango digu. Gure zorionerako, hor dugu bien bitartean ate joka Mikel Zarrabeitia.

Julian Gorospe kirolari handi bat da. Maiz erakutsi digu, ondo baino hobeto dakie-la irabazten eta galtzen. Batzutan bera izan da "leader" a; guztiok aho zabailik utzi gaitu, batez ere, bakar-bakarrik, erlojua eta norbera direnean etsaiak, lasterketa handiak eginez. Lasterketak nonahi irabazi ditu, palmares aparta du, agian bere karrerari ohorezko matrikula emateko itzuli handi bat menperatzea falta izan zaio, baina ordainetan, txintik ere atera gabe, Kixote handientzat. Santxo Panzarik onena bera izan da. Eginbehar hori edonork ez du onartzen; dena izan denari ezinezkoa zaio, baina Juliani ez. Oso bikain!

Mikelentzat irakasle eta eredu on bat da Julian, hala ere, bide ona hartu duela ezin uka. Iaz Errioxako itzulia irabazi zuen, bere lehen itzuli handian, aurten 12. amaitu du, taldearentzat txapela kentzeko moduko lana egin ondoren. Hasi da, orain jarraipena behar du. Bidea urratsez urrats egiten da, eta lehenengoak kolore ona dute, txapeldunen kolorea. Ez dadila ajatu.

Arritxu Iribar.

HOGEI

Tfno. 12 10 19
Bittor Sarasketa, 7 - EIBAR

Autoberezi


Tfno. 76 62 10
Bº. Antigua, s/n - BERGARA-ANTZUOLA

KANPAZAR


Tfno. 79 41 98
Avda. Bizkaia, s/n - ARRASATE

FIAT

TIPO BERRIA. SEGURITATERAKO SORTUA.



TIPO BERRIA. 3 ETA 5 ATE.



Rostellan ta Anquetil 1964ko Arrateko igoeria ekiterakuan.



Poblet Ipuruako belodromuan jentia agurtzen, 1965an.



Postulaziñoeko karabania 1965an.



Charli Gaul 1965ko kontrarelojaren urteeran.

Juanito Gisasola "Txoko"

"Zeozer eukiko jua n karrera honek Anquetil lau urte errezkadan etortzeko"

Eibarko Ibarkurutzeko kalia jaixotako Juanito askotan ibilli da Untzagan, kioskua dauan lekuan, bizikleta gaiñian malabarismoak eitten. Baita Hendaian irabazi ere, behiñ. Motorrian, bestalde, 21 urte egin dittu: Komisario lanetan jardun izan dau 9 bider Espaiñako Bueltan, 3 bider Frantziako Tourrean ta baita Luxemburg ta Marokkon.

Amuategi Batalloian egondako gizon honek 31 urte emon ditu Arrateko Igoeria eratzen. Horretaz aparte, 5 urtetan zihar C.D.Eibar-ko lehendakarixa izan zan. Beste 5 Dianan, Ehiza ta Arrantza Elkartian. Estatu maillan ziklo-krosseko Batzordeko lehendakarixa ere izan zan 6 urtetan. Aurten jasoko daben omenaldixa, hainbeste denboran egindako lana eskertzeko modu bat besterik ez-ta.

Eratzaile moduan ekin zenetsanian, irabazliak 50 duro kobratzen zittuan. Zurekin 500 pezeta kobratzera pasatu zan. Zelan emon zan hori aldaketiori?

Leku guztixetan eskian, hasi taillarretik, ia ehun bisitatzen nittuan, tabernetatik jarraitu ta Coca-Cola enpresa be bai. Diputaziñuan be mundu guztixari tabarria emoten. Kontu eiñ publizidade etxiak diru gitxi jartzen zebela ta txirrindularixak eruaten zeben propagandia oso merkia zala.

Nondik lortu eban karre-riak hainbesterako izena?

Bizittasuna emotia nahi izan netsan. Horretarako, Frantzian egiten ziran karrera bittan konturatu nitzan: Mont Farom eta Mont Agel, antzerako zeozer hamen eitteko. Gero, batez be Bahamontes eta Loroñokin ta, jakina, bahamontisten eta lorañisten arteko pikiekin.

Jean Dotto ta Valentin Huot-ek atzerritarren bidia zabaldu zeben; ta Anquetillek jarraitu. Ez zan erreza hori ekartzia izango, ezta?

Anquetillen aurretik Louison Bobet-en bisittia izan genduan.


Horrek be hiru bider Tourra irabazitta zekanez, jentia ez zeban siñisten ona etorriko zanik. Baina hamen egon zan.

Anquetillen kasuan, lelen- go managerrangana jo neban ta horrek 25 milla duro eskatu estazan. Gero txirrindularian etxera jua ta berak 5 mila durotan laga eskun. Ondiokan

"Bahamontesek Kas-ian korrittu jua n, nahiz ta askok siñistu ez"

be goguan dakat Galerias Preciados aurrian eiñ zeskun harrera. Detaille politta izan zeban gurekin karrera amaittu ta gero: ikusi zebanian zelan geniharduen batutako dirua eskuzen "txanpaina erateko". Ordutik aurrera, federaziñuak fetxia emon, etxera deittu ta segiduan hartzen zeban konpromisua.

Kontratueta n alde haundixa euan?



Puruaz egin zan Juanito ospeduna. "¡Qué bien vive Juanito el del Txoko, cuando va con el puro en la moto!" kantatzen zetsen askotan.

Gaur egun be holan izaten da. Anquetil ta Gimondik 100 mila pezeta kobratu zeben, Poulidor, Bobet eta Janssen-ek 90, Gaul-ek 65 ta Aimar-ek 60. Bahamontes-ek 35 milla ta Loroñok 20. Gehixen kobratu zebana Ocaña izan zan, Tourra irabazi ostian: 125 milla pezeta. Kas taldiak 90

milla kobratzen zittuan, La Casera-k 75 ta Karpy-k 50 milla. Ez ahaztu guztira 26 edo 28 zirala parte hartzen zebenak, lelen go maillakuak ta gonbittiakin kasu guztixetan

Egixa da 50 milla lagun batzen zirala karrera ikus- teko?

Gatxa da zifra bat emotia. Baña karreterea moztu ta karrera ez zala aterako amenazua jo genduan behin.

Egunkari asko ta irrati guztixak etortzen ziran. NODOan ataratzen zeben ta Marca, Dicen, L'Equipe ta Santander-ko Alertak orrixak ta orrixak kaleratzen zebeten.

Zeintzuk dira orduko ta gaurko karreren arteko desberdintasun nausixenak?

Lelengua, publizidadian indarra. Txirrindularitzan, gañera, foballian baño indar gehixao dauka, telebisiñuak publizidadia enfokatzen dabelako. Lehen eskale moduan ibiltzen ziran askotan. Galerak esate baterako, bi milla pezeta eskatu zittuan ta gero irabazi. Dirua beti da edarra ta orduan gehixau. Bahamontes be hor ibilli zan Kas-en representantia moduan Toledon hillabete batzuetan ta nahizta jentia jakin ez arren, proba batzuk korritu zittuan maillot horixekin..

Janarixetan be alde haundixa dago. Zer esanik ez, medikuekin. Badakizu zer dan txirrindulari batendako benetan kaltegarrixa? Biñagria, odola mehetu eitten dabelako.

Zelan jarraitzen dozu gaur egunian txirrindularitza?

Auto barruan joan ezkerio, beti sufritzen. "Horrek zer eitten dau, traban!" ta holakuak burutik kendu ezinik. Horregaittik nahixau dot ez joatia. Hoge i urte gutxiagokin motuan ibiliko nintzateke.

Normalian telebisiñotik jarraitzen dot. Baña Tele 5-n eitten dabena ezin da eiñ, kilometro bat falta danian moztu. Zer da hori? Gero esaten detsuete: "Hanka eiñda joiak". Bai, baña noiz? Ni askotan Alemaniako telebisiñora pasatzen naiz holakuetan. ETBk, ostera, bihar dan moduan ematen dau. Ikusten da karreriar beste zentzu bat hartzen detsala.

Euskadi Fundazioa, zaletasuna sponsor paperean


Fundazioko Karta eginda dago jadanik. Bertan, bere estatuto eta Arautegiak azaltzen dira. Gestora batek sinatuta. Eta urrats honekin, aurrera jotzeko gogoia erakutsi dute proiektua ateratzeko sortutako komisioko partaideak. Jaime Ugarte, Euskadiko Federazio-ko lehendakariak, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako lehendakariak eta txirrindularitza munduko beste zortzi lagunek osatuko dute Fundazioaren Direktiba. Idazkaria eta diruzaina ere izango dira Jose Alberto Pradera, Bizkaiko diputatuak, aurkeztu zuen ideiarene fase honetan.

Julian Eraso, Euskal Bizikletaren antolatzaileetarikoa eta Komisioko partaidea denak dioskunez "hamasei mila lagun apuntatu dira dagoeneko eta Sistemas Europeos de Comunicación enpresak Bizkaian burutu dituen inkestaren arabera, bakarrik % 10ak egingo du atzera. Bost mila inkesta egin dira eta guztiak pertsonalak".

"Ez baditugu 250 milioi

Hamasei mila dira izena eman dutenak orain arte.

lortzen ezingo dugu aurrera egin" gaineratu digu. "Gauzak legalizatuz joan behar dira, gero jendea dirua eskatzeko. Hori bai, nahikoa ez bada ateratzen, diru hori bueltatu egingo da. Porrot egin dugula errekonoizitu eta kitto!". Horregatik, zabalduko den kontu korrantea blokeatu egin-



Euskadiren presentzia ez da arraroa txirrindularitzan.

go da, dirua sartu bai baina atera ezingo da egin.

Jendeak nahi badu, ekipo

Datorren urtean ekingo dio ekipoak bere errepideko bizitzari. Urte bukaerarako prestatu eta bideetara ateratzeko asmoak daude. Talde teknikoa osatu eta profesionalen ekipoa eratuko da, Athletic-aren bideari jarraituz. Txirrindulariak hemengoak edo hemen aritutakoak izango dira: "Ez da elitekoa izango. Pare bat, hiru, lau profesional on fitxatuko dira, erdipurdika dabiltzan beste hiru edo lau, gazteak hauek eta afizionatutik igoko diren beste batzuk egongo dira. Hasieran, beraz, ekipo apala izango da", Erasoren eritziz.

Dena den, jendeak erantzuten duen araberako ekipoa izango da "Euskadi" izena paseatuko duen taldea. Hori da behintzat Fundazioaren filosofia. "Txirrindulari bat hemen formatu eta proiektatzen bada, askoz hobeto. Ateak zabalik edukiko ditu" dio Erasok.

Dozena erdi maillot prest

Euskadi Fundazioa taldetik pasatutako txirrindulari, mekaniko eta zuzendariei lagunduko die. "Fondo social" edo antzerako zerbait sortuko da euren babeserako, edozer

gauza dela eta horren beharra izaten badute. Kirola bultzatzea, batez ere afizionatu mailan, du Fundazioak helburu gisa eta Euskadiko Txirrindulari Elkartearen sortzeko asmoa ere.

Gutxienez 250 milioi pezeta behar dira zeozertan hasteko.

Erasoren esanetan, "enpresa asko ari dira gurekin lanean. Visa txartelarekin karneta ateratzeko ideia ere hor dago, bidaia agentziak prest daude kolaboratzeko eta horrela beste asko".

Maillotaz ere pentsatu dute eta dozena erdi proposamen jaso. Jakina, ikurriñaren hiru koloreak erabiliz. Gaurko diseinuak eta EUSKADI izenarekin konbinatuz.

Hemendik egun batzutura badirudi zenbait berri helduko zaigula. Ea onerako den!

Euskadi Fundazioa

Euskadi Fundazioak hainbat zeresan eman du azken hilabeteotan. Praderak botatako asmoa gorputza hartzen joan da inork uste baino azkarrago eta ezereen okerrik ez bada, tropel profesionalak talde berria izango du datorren urtean, 1994.ean. Aldeko jarreraren ondoan kontrakoak agertu dira; batek baino gehiagok esan du Euskal Herriak arazo grabeagoak dauzkala eta euskaldunok horretarako dirua ematea astakeria bat litzatekeela.

Oraindik ere Fundazioaren arduradunek ez dute azaldu taldea nolakoa izango dugun, zeintzuk osatuko duten, bai txirrindulariak, zuzendariak, masaje emaileak... Zain gaude.

Krisialdi ekonomikoak jota gauzkan sasoi honetan, euskal talde profesionalaren premia larria ere ikusten dut. Praderak talde mastodontiko bat aitatzen zuen, euskal txirrindulari onenekin, baina ni beste era bateko ekipo baten aldekoa naiz, mundu horretan bai sartzeko eta bai aurrera egiteko geroz eta arazo gehiago dauzkaten gazteei irtenbidea emango dien taldearen alde. Filosofia berri batekin, egitura berri batekin, ohizko talde profesionalen alternatiba. Emaitzak aurreragoko laga eta harrobia, prestaketa fisikoa, zainketa medikua, arlo teknikoa, txirrindularien hautaketa-sistemak beste era batera antolatuko dituen taldea.

Hori ematen badigu, Fundazioaren alde nago, baina aitortu behar dut gauza dexente ilun xamar ikusten ditudala oraindik.


Joseba Lezeta



Euskal Bizikleta

BICICLETA VASCA

93



ETB



ZU BEZALA, KIROLZALEA

kutxa beti ere aurretik kirolari laguntzen



Gipuzkoako zaletu guztien alde.
Gure gazteen alde. Eta gure tradizioen
alde. **kutxa** beti ere gailen.
Gipuzkoar guztien alde.
Gurea den guztiaren alde, **kutxa** beti
ere laguntzaile. Laguntzaile jator.
Horregatik ospatuko dugu pozaren
pozez Arraterako igoeraren 50.
Urteurrena. Euskal Bizikletaren
arrakasta bat gehiago. Gipuzkoar
kirolaren beste arrakasta berri bat.
Gipuzkoaren alde: bihotz-bihotzean
daramagulako.



kutxa

gipuzkoa donostia kutxa

gipuzkoa: bihotz-bihotzean

● *Jose Mari Ulazia*

Gestio Eskola: enpresarien sehaska

Datorren ikasturtean Deba Beheko Gestio Eskola hasiko da martxan Elgoibarren. Proiektu horren berri ematen izan da Arrasaten aste honetan Jose Mari Ulazia, Deba Beheko Ikasbat formazio eta hezkuntza erakundeko arduraduna.

— Zer izango da Gestio Eskola hau?

— Esango nuke ilusioz beterik egin dugun proiektua dela, ez dela goitik behera etorritako ideia bat, baizik eta baduela bere jatorria. Jatorria aipatzeko, esango nizuke 1991 urtean zehar Deba Behean egin genuela hausnarketa sakon bat, plan estrategiko sozio-ekonomiko bat, eskualde guztiari begira, eta hor giza-baliabideen formakuntzaren beharra garbi agertzen zen. Unibertsitate mailako ikasketei dagokienez, alde batetik kontuan izanda baganeukala halako esperientzia nahiko aberatsa industria eta teknika aldeko ofertan, hori nolabait osatu nahian, derrigorrezkoak zitzaizkigun unibertsitate mailako ikaske-

ta mota berri batzuk, *economicas* edo *empresariales* kut-suko ikasketa berriak. 91n amaitu zen hausnarketa edo planifikazio hori. Urte t'erdian honetan jardun dugu lanean eta honelako emaitza nobedoso edo berriztatzaile samarra ateratu zaigu, Gestio Eskola izenarekin.

— Zein ikaslerentzat egongo da zabalik?

— Ertainetako zikloa bukatzen duen ikaslegoari begira dago pentsatuta hau. Ertainetan, UBI (COU), Lanbide Heziketa 2 daukagu, eta REM hori ere bai, goi batxilergoa edo 3. mailako moduloa amaitzen duen jendearentzat zuzendurik dago.

— Ez da zentro publikoa izango.

— Gure nahia ekimen soziala izatea da. Ekimen sozial hau burutzeko erakunde publiko eta entitate pribatuen ezkontza edo lotura bilatu nahi dugu. Jaurlaritza, Gipuzkoako Diputazioa, Deba Beheko udalak Debegesak ordezkatuz, instituzioen aldetik horiek inplikatzeko dira, eta gero

entitate pribatuak ere badaude, adibidez Iberdrola, Eroski, Tekniker, Gipuzkoako Ganbara, LKS eta diru-etxeak, Kutxa eta Laborala bezala. Zerbitzu publikoaren asmoa garbi dugu, baina gestio pribatua izango da.

— Zenbat ikasle? Zer nolako matrikula?

— Guk proiektu erreala samarra nahi dugu egin. Gaur egungo beharrei erantzun liokeen proiektua da, eta proiektu kontrolagarria egin nahi izan dugu. Eta neurri bat eman diogu: 40 ikasle urte bakoitzeko. Honek egingen du proiektu kontrolagarri eta pertsonalizatua. Matrikula gisa urtean ikasleak ordaindu beharrekoa 250.000 pezetan dira, benetan dirutza serio samar edo errespetagarria. Baina esan daiteke garbi asko ikasleen aportazio honekin

urte bakoitzeko aurrekontuaren laurden bat finantzatzeko dugula. Unibertsitate mailako oferta pribatua badaude aukera merkeagoak, adibidez, hemen Arrasaten injinerutza merkeagoa da, baina beste guztiak, Deustua, Donostiako EUTG, Iruñeko Opusekoa eta, enpresari ikasketa hauek tan bastante garestiagoak dira.

— Ekonomia bultzatzeko balioko du ekimen honek?

— Nire ustez enpresari berriak sortzeko balioko du. Uste dut guztiok izan gaitzekela, potentzialki behintzat, enpresariak. Horrela planteatuz, ez dugu eskola ikusten hezkuntz proiektu sinple edo huts bat bezala, baizik eta beste proiektu estrategiko bat bezala, beste erreminta bat. Beste programa batzuk ere bultzatu ditugu guk eskualde mailan, adibidez enpresa berrien inkubatzailerak. Hau lorturik uste dugu dinamizazio berri bat bultzatu dezakegula, eta azken batean ekonomia bultzatzea enplegua sortzea da. Guztiok izan gaitzke noreberraren enplegu bultzatzaile eta suspertzaile.

● **“Esperientzia aberatsa dago industria eta teknika aldeko ofertan, eta hori osatzeko derrigorrezkoa da eskola berria”**



Eskola Politeknikoa


50 urtez, hezi eta hazi

Luis Fernandez

1943ko urrian ireki zuen Jose Maria Arizmendiarrietak Eskola Politeknikoaren jatorria izan zen Eskola Profesionala. Eskolak aurten beteko ditu, beraz, 50 urte edo urrezko ezteiak. 20 ikaslerekin hasi zena, hezkuntza proiektu arreratu da gaur egun, urrats berriak emateko gertu dagoena: egoitza berria eta goi-injinerutzako ikasketak.

Arizmendiarrietak hezkuntzagatiko ardura izan zuen Arrasatera 1941ean iritsi zenetik. Union Cerrajeran, 10 bat ikaslek (bertako beharginen semeak) ikasten zuten, baina hura toki itxiegia zela eta, eskola profesional zabalagoa egiteko asmoa bururatu zitzaion. Bururatu eta ekin: proklama publikoa zabaldu zuen kaleetan 43ko abuztuaren 2an, alkate batek bandoa kaleratuko lukeen bezala, eta horrela bildu zuen jende multzo bat eskola sortzeko.

Biteri eskoletan lortu zuten egoitza (gaur egun aparkalekua dagoen lekuan), eta babesa Accion Catolica zeneko gurasoengandik. Eliza zegoen Eskolaren atzetik ha-



Biteriren eskola zaharrak, gaur egun aparkalekua dagoen tokian zeuden. 50 urte beranduago, maketak erakusten digun eraikuntza berria aurrera doa oraingo Eskolaren ondoan.

siera hartan, ez baitzegoen beste modurik. 20 ikasle hasi ziren, eta 1. promozio hartako bat, Luis Garmendia, irakaslea da gaur egun Eskolan, eta aurten jubilatuko da.

BATETIK BESTERA

Biteri eskolak txiki geratu zirenean, 1952an gaurko Zentro Asistentziala den eraikuntzara pasatu zen Eskola. Negozio bezala porrot egin zuen

almazen bat zen hura, eta ugazabari kreditu bat eskatuta erosi zitzaion. 3-4 milioi PTA izango ziren, eta 25 urtetan egon ziren gero kreditua ordaintzen, edifizio hura utzi eta gero ere bai.

Egoitza hartan 150 ikasle baziren baina etxea handi handia zen. Pixkanaka joan ziren hura betetzen, adibidez, moja mertzedariak etorri zirenean eta 4. solairuan "erresidentzia" (gela handi bat) eta jantokia antolatu zutenean (1957an).

Baina hura ere txiki geratu, eta oraingo Iturripeko eraikuntza konplexura mugitu zen Eskola. 1963-64 ikasurtean zehar, klaseak zentro berrira joan ziren mudantza egiten, Pajaro Azul gaitzizeneko furgoneta zahar batean karnet usainik ez zeukaten irakasle gidarien lanari esker.

Dena martxan zegoenean ofizialki inauguratu behar izan zen: Franco abuztuaren Donostian zegoela eta, iraillean Eskola irekitzera ekarri behar ei zuten. Juanito Leibarrek, Eskolako beterano batetik, kontatzen digu anekdota: "Komisio bat etorri zen gertaketako, eta dena erdi hutsik zegoen ezker, beste tailer eta leku batzuetatik ekarritako gauzeekin bete zen dena, Franco ikusteko. Baina ailegatu zen eguna, eta Franco ez zen etorri, beste eskola bat inau-

guratzera eroan zuten Herre-
rara. Zumarragako Orbego-
zon huelgan zeuden eta han-
dik ez pasatzeko, arriskua edo,
Francok ezer ez ikusteko,
Francori berari ezer esan ba-
rik seguramente, ez zuten
hona ekarri”.

AUKERAK ZABALTZEN

Toki beharrean egoitzaz
aldatzen joan den bezala, Es-
kolaren gaitasun akademikoa
handitzen joan da. Hasieran
14 urtetik aurrerako mutikoak
ziren, mekanika ofizialia ikas-
ten. Apurka apurka, perito
mailako ikasketak ematea lor-
tu zuten, azterketak Zarago-
zan egiteko baimena lortu
zenean (47an).

1957an, lanbide heziketa
edo formazio profesionala
eratu zen formalki, eta handik
gutxira peritaje ikasketak zi-
renak, injinerutza tekniko bi-
hurtu ziren. “Peritajeak ez
zeukan entzuerarik, edo beste
nazio batzuetan ez zegoen
halakorik”, kontatzen digu
Juanito Leibarrek, “eta Es-
painian ez zegoenez injenie-
rorik, dekretu batez, denak
injeniero”.

Emakumezkoen integra-
zioa, dekretu bidez ez, baina
borondate handiz lortu zen.
Arizmendiarrietaren berdin-
tasunaren aldeko ideiak
pixkanaka hedatu ziren. Le-



Juanito Leibarrek bizi-bizi ditu gogoan Airzendiarrietaren 2.30etako konferentziak.

henbizi, mertzedariekin bate-
ra, kozinan eta jostun hasi zi-
ren neska batzuk. Gero,
emakumezkoentzako “apro-
posagoak” izan zitezkeen
(bata zuriaz, garbiago edo)
ikasketak hasi ziren: delinea-
zioa eta kimika. Baina bere-
hala hasi ziren mutilak ere
ikastaro horietan izena ema-
ten, eta alderantziz, neskak
beste karreretan integratzen.

Euskarak ere apurka apur-
ka egin zuen aurrera. Garai
batean, dena zen erdaraz Es-

kolan. Euskararen lehen ager-
pena Eskola kaleratzen hasi
zen ‘T.U.-Lankide’ aldizka-
rian izan zen, eta 64aren in-
guruan, aldizkari bat bahitu
ere egin zieten “Espetxeak eta
Gabonak” izeneko artikulu
bategatik. Gaur egun, presen-
tzia nabarmena du euskarak
Eskolan. Injineritza euskaraz,
adibidez, duela zortzi urte hasi
zen lehen promozioa.

Eskolaren adarrak ere hazi
eta hazi egin dira. Ikasleak
atzerri bidaltzeko Goierpro-

grama; Alecoop, ikasleak lan
egiteko sortua; Ikerlan zen-
troa; Iraunkor, birziklatzeko
ikastaroak ematen dituen
programa; Saiolan zentroa,
enpresa ideiak sustatzeko...
Bidean geratu zen inizatiba
bat, irratia, parrokiaren babe-
saz hasi zena (1957), baina
agintariei traba egiten hastean,
atxakia batez itxiarazi zutena
(1964).

Zabaldu ahala, baliabi-
deak eta kalitateak ere gorun-
tz egin du Eskolan. Informa-
tika alorrean maila handia
dago gaur egunean, baina
kontuan hartzekoa da 250 K-
ko lehen ordenagailua 1980an
ekarri zutela, 36 K-ko trasto
zaharrago baten ordezkia.
Denboran atzera eginez, due-
la 30 urte, aurreko eskola za-
harrean, idazteko makina
bakarra zegoen!

Edozela ere, kalitatea, hu-
manoa da batez ere, eta duda-
rik ez dago irakasleek lortu
duten mailaz. Adibidez, sarre-
ra azterketa baten, historiako
matematikari handiak aipa-
tzeko eskatu zuten galdera
batean: “Pitagoras, Arkime-
des eta Elorza, Eskolako”,
erantzun zuen ikasle batek.

Eskola eta kooperatibak

“Jende askok esaten du kooperatiben lanetik sortu dela Eskola eta ez, kasik aldrebes,
kooperatibistek handik irten dute”. Juanito Leibarrek dioen bezala, ez dago dudarik ea
arrautza edo oiloa, zer izan zen lehenago. Eskola sortu eta gerora gorputzu zen kooperatibi-
moa Arrasaten. Lehen kooperatiba, Ulgor, 1943. urteko lehen promozioiko Usatorre, Larra-
ñaga, Gorroñogoitia, Ortubai eta Ormaetxeak sortu zuten 1956an.

Arizmendiarrietak Eskolan emandako bultzada oso garrantzitsua izan zen. Garai bateko
ikasleek gogoan izango dituzte 2.30etako eguneroko konferentziak. “Denak biltzen ginen,
batzuk lo, besteak galdezka, besteak belarria tente, baina Don Jose Maria beti pozik, baze-
kien zeozer geratuko zela”.

Garaiak aldatuz doaz, eta izpiritu hura ez da orain, seguru aski, sasoi bateko bera.
“Erromantizismo bat zegoen, hori galduta dago, orain dena da praktikoagoa, ez dakit
onerako edo txarrerako”, dio Leibarrek. Azken batean, aldaketa hau ez da Eskolan bakarrik
gertatu, kooperatiben munduan ere bai, eta areago, gizarte osoan.

Nesken Mondra, ligako hirugarren eta kopako irabazle

Mondrako nesken ekipoa Gipuzkoako kopako txapel-duna da. Pasa den igandean-Zumarragako Argixao futbol zelaian Irungo Dunboa eki-poaren kontra jokatu zuten eta 45 minututako bi denborak bukatu ondoren, bina enpatatu zuten. 10 minututako pro-rroga ere berdin bukatu zuten eta penaltietara heldu ondoren, 3-1 irabaztea lortu zuen Mondrak. Mondra ekipotik zelaira kaleratu zuen alineazioa: Jone, Arantxi, Olaia, Paki, Iratxe, Titu, Izaskun, Saioa, Ana, Larraitz, eta Ainhoa. Baina ekipoa hauek ere osatzen dute: Jaione, Ainhoa Zulueta, Oihana, Izar, Susana, Amaia, Ziortza, Saioa Baena eta Saioa Lizarralde. Goleagileak: Izaskun eta Paki eta penaltietan Urri, Ana eta Iratxe. Aurtengo nobedadea Urri izan da, ekipoaren norabidea jarraitu duzuenok ondo gogoratuko duzue iazko denboraldian ekipoa utzi egin zuela, baina aurten beste jokalarien animoari esker, kopan jokatu du eta bai ondo jokatu ere, penaltietan berak lortu baitzuen Mondraren lehen gola.

Gutxitik gehiagora

Kopa etxean, beraz, eta denboraldiaren laburpena egiteko unerik egokiena izan dai-



Zumarragako Argixao futbol zelaitik Gipuzkoako kopa ekarri zuten Mondrako neskek.

teke. Hasi, nahiko eskaz hasi ziren baina galtzen hasi arren, piskanaka piskanaka postuak irabazten joan dira eta ligan Irungo Dunboa laugarren postuan eta Mondra hirugarren postuan geratu zen. "Bai, egia esan nahiko eskaz hasi ginen baina gutxitik gehiagora joan gara. Ligan hirugarren postua eskuratu ondoren, ez dugu partidu bat ere galdu eta gehiago esango dizuet, urtarriletik ez dugu bat galdu" esaten digu Tituk. Orain dela bi urte kopan sartu eta finalera heldu ziren, hala ere, galdu egin zu-

ten azkenengo partidua. Iaz, berriz, ez ziren finalera heldu nahiz eta nahiko ondo ibili denboraldian. Aurten prestakuntza hobea eta zorte piska bati esker, finalera heldu eta igandeko partiduan kopa irabazi zuten.

Astean bi egunetan entrenatzen dute baina aurten iraillean prestakuntza fisiko berezia izan zuten IVEFeko Cesar irakaslearekin. "Azken bi urtetan prestakuntza hobea eduki dugu eta igartzen da". Horretaz gain, entrenatzaile ofiziala Jesus Mari Barrutia-

bengoa, "Txiu" izan da eta delegatua, berriz, Jabier Madariaga.

Aipamen berezia

Nesken Mondra ekipoa orain dela sei urte sortu zen, Rosi Otaduiari esker, eta nola ez, aurten kopa irabazi dute-nez, ezin dute sortzailea ahaztu. "Egia esan jokatzen ari garenean eta, urtean zehar ere ez gara gehiegi gogoratu berataz, baina kopa eskuetan hartu genuenean, berehala bera etorri zitzaigun burura" dio Tituk.

ARRASATE
PRESS

HARPIDETZAK



77 05 65

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Onduline TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako
materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18
ARRASATE

PENALTIAK

● Utebon galdu arren, Mondrak aukerak ditu oraindik 2.B mailara igotzeko. Izan ere, play-off-eko talde batek, Egües-ek, ez du igotzeko gogorik, eta agian Utebok ere ez. Beraz, Santanderreko Escobedo da etsaia, eta harekin izango dira azken bi partiduak. Hori baino lehenago, igandean (Atxabalpen 5etan), Egüesi irabazi behar.

● Deba Harroko pelota txapelketako finalak joan den larunbatean ospatu ziren Elgoibarren. Infantiletan, Etxebarria eta Rubiak galdu egin zuten Sorluzeren aurka (18-16), baina Igor Gonzalez eta Josu Errasti jubenilek irabazi egin zioten Antzuolari, 22-21.

Udako ordutegia kiroldegietan

Datorren asteartetik aurrera udako ordutegia hasiko da kiroldegietan, eta Musakolan kanpoko igerilekua irekiko da. Astelehenean, barruko igerilekua itxi egingo da dena prest izateko, eta biharamunean, eguraldiak laguntzen badu, zerua bistan lehen bainua hartzeko aukera.

Udako ordutegi honekin, Musakolan kanpoko igerilekua goizeko 9etatik arratsaldeko 8ak arte egongo da zabalik egunero. Gainerako instalazioak, astelehenetik ostiralera, 8.30etatik 21.30ak arte, eta asteburuetan 8.30etatik 20.30ak arte. Iturripeko kiroldegian, astelehenetik ostiralera, arratsaldez bakarrik, 17.00etatik 20.30etara; larunbatetan 8.30etatik 20.30etara, eta igandean



Kanpoko igerilekua asteartean irekiko da, eguraldia lagun.

8.30etatik 13.30etara. Abuztuan Iturripe itxita egongo da, eta Musakolan berriro aldaturiko da ordutegia: instalazio guztiak 9.00etatik 20.00ak arte egongo dira zabalik.

Bestetik, ostiral eguerditik larunbatera bitartean, 24

orduko igerialdia ospatzekoak dira Musakolan. Partaidetza librean, txandaka etengabe ibiliko dira igerilariek luzeak egiten. Iaz, 12 ordu izen ziren bakarrik, eta txandak amaitzean 33,5 kilometro egitea lortu zuten 76 igerilarik.



ARRASATEKO UDALA

Euskara ikasleentzako bekak

Arrasateko Udaleko Euskara Batzordeak urtero bezala dirulaguntzak eskaintzen dizkie 1993-94 ikasturtean euskara ikasten aritu diren arrasatearrei.

Eskaerak **uztailaren 16a baino lehen** aurkeztu behar dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo Euskara Zerbitzura.

Ikastola Sorginpunkynduta

“... eta Ikastola sorginpunkyndu egin zen”.

Ahots Guztien Gidariak promesa bat egin zion Makil Handiari: herri sorginpunkynduko zuela. Gainera, egun zailenean lortuko zuela: lana egin ondoren, herriak deskantsatzen zuen egunean, begiak eguzkiz beterik zeuzkan egunean. Bai, orduan egingo zuen. Bere bizitza osoaren ahalmen guztia erabiliko zuen, agortu arte behar bazen ere, baina sorginpunkyndu egingo zuen. Bai horixe!

Ikastolan finkatu zituen bere begiak. Hura zen tokia! Haurrak izango ziren lehenak, berak prestatuko zituen eta horretarako Sorginpunky erabiliko zuen. Bai, haurren bitartez lortuko zuen. Inork ezingo zion bizkarra eman haurrek duten goxotasunari, alaitasunari, inozentziari.

Eta horrela, Ikastola sorginpunkyndu egin zuen. Ahots Guztien Gidariak zeruan eta lurrean dauden podere guztiak bere gain hartu zituen eta Ikastola bere menpe gelditu zen. Sorginpunkyren menpe.

Inork ez zuen jakin noiz, non eta nola, baina indar berri batek bultzatzen zituen Ikastolako guztiak. Ezagu-

tzen ez zuten bukaera baterantz zihoazen, lana eta lana eskatzen zuen bukaera egin behar zuten denen artean. Bakoitzak bere neurrian. Inork ez zuen galdetu bukaera horretaz; ez zuten denborarik, ez zitzairen axola, gainera. Bakoitzaren lana beharrezkoa zela sentituz zuten bakarrik. Norberaren apur hori gabe bukaera bukatugabekoa izango zen hori... hobeto ez pentsatzea!

Gauzak horrela, Sorginpunkeria igertzen hasi zen: han hemenka, “Sorginpunky, Sorginpunky oihukatzen zuten Ikastolakoek. “Sorginpunky, Sorginpunky” marrazten zuten, dantzatzen zuten.

“Nondik dator Sorginpunky? Zientzuk dira bere lagunak?” galdetu zuten ikastolakoek. Eta horietako batzuk historia ikertzen hasi ziren. Eta Sorginpunkyren lagun batzuk topatu zituzten: sorginak, lamiak, basajaun. Gainera jakin zuten hurbil zeudela, herritik hurbil, bai.

“Eta zelakoak ziren lagun horiek?” Marrazkietan isladatu zituzten beraien aurpegiak, gorputzak, jantziak.

Baina Sorginpunky gehiago nahi zuen. Egund batean bere erresumako irudia eskatu zuen eta

taldeka jarri ziren Punkyntzokia egiten.

—“Baina nire Punkyntzokian ez dut etxe bat ere ikusi nahi. Pentsatu ere ez.”

Eta Punkyntzokia mendiz, lorez eta zuhaitzez bete zuten Ikastolakoek.

—“Eta animaliak? non daude animaliak? Animaliak behar ditut”.

Eta Ahots Guztien Gidariak animaliak eskatu zituen. Ikastolako haur batzuk orduan, beraien tamainaren arabera, animalia bihurtu ziren: txoriak, elefanteak...

Sorginpunky irrifarrez zegoen. Denok berarentzat lanean. Baina Ahots Guztien Gidaria ez zegoen pozik. Zerbait falta zen. Bere barruan somatzen zuen horrela bakarrik ez zuela herria Sorginpunkynduko eta Makil Handiari galdetu zion.

—“Herri honek,— erantzun zion— zerbait berezia dauka. Bera erabiltzen baduzu, eta horrela bakarrik, herria zurea izango da. Pentsatu! agindu zion joan aurretik.

Eta pentsatzen jarri zen, bai, asko pentsatu zuen. Laguntzaile guztiakin hitzegin zuen, marrazki guztiak ikusi, historia guztiak entzun. Orduan ulertu zuen. Begiak diztira-

tsu, oihu egin zuen:

—“Musika! Bai, musika erabili behar dut. Musikaz egingo dut nire herri hau! Zuek izango zarete nire tresna — esan zien lagun-tzaileei. Zuek abestuko duzue, herria musikaz beteko duzue. Sorginpunkyren soinuaz, Sorginpunkyren abestiaz. Kanta eta kantaz, soinuaren soinuaz lortuko dut”.


Eta horrela da, lagunok. Ikastolan kanta eta kanta ari dira. Belarriak, begiak, eskuak, birikak, bihotza, Sorginpunkyren abestiaz betetzen ari dira, beraien hezurretaraino heltzen ari da Abestia eta laster batean Ikastolak bere ahoa zabalduko du eta Ahots Zoragarria, Inoiz Entzun Ez Den Ahotsa entzungo dugu.

Bai, lagunok, ez duzue zer eginik. Zuek ere deskantsatzen duzuen egunean, begiak eguzkiz beterik eta ezpainak pozari zabaltzen dituzuen egunean, Punkyntzokian agertuko zarete eta ezingo duzue ezer egin. Benetan ezetz. Zuek ere Sorginpunkynduta geratuko zarete.

Ordurarte, ja, ja, ja!

**SORGINPUNKYREN
HISTORIAGILE
BAIMENDUA**

Erdiko kale. 79 19 37



Ferreries. 79 87 62

“PAL”

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99



**IBARRA
Garajea S.L.**







**Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua**

Euskararen erabilpena

Hauteskunde Nagusien kanpaina Arrasaten


AED Elkarteak duela bi urte Udal hauteskunde kanpaina egin zuen bezala, neurtu egin du alderdi politiko bakoitzak zenbat euskara erabili duen hauteskunde kanpaina honetan. Hementxe dituzu ahalik eta irizpide zehatzenekin jasotako emaitzak.



Egin den bidea ez da makala, baina oraindik lan handia dugu, Arrasate euskaldun dezagun.

EUSKARAZ BIZI!!!

GESTIO ESKOLA



SUP'T.G.
Ecoles Supérieures des Techniques de Gestion

- Ikasketa berri baten bila bazabiltza.
- Zeure bizimodua gestiogintzan ikusten baduzu.
- Giza taldeekin jardutea gustatzen bazaizu.
- Bide berriei ekitea gustoko baduzu.

Zugana dator Europa mailako
Unibertsitatea:
Frantziako SUP`T. G. sarea

- 4 urteko heziketa Europa mailako tituloaz.
- SUP`T. G. sarea homologatuta eta babestuta.
- Deba Behean kokatuta. Kanpotik datozen ikasleentzako egoitza.

Informazio eta izen-ematea

I.H.M. edifizioa. San Roke auzoa
Tfnoa: 74 41 32 (Susana Azpilikueta)
20.870 ELGOIBAR



Idalako lagun kuadrila da erreturatuko hau. Urteak asko pasa dira, baina zenbat esaten ez dute jakin. Dena dela, mutil horiek orain hirurogeita hamar beteak dituzte denek.

Ezkerretik hasita, zutik, **Inazio Garai**, Biezkoa baserrikoa, **Txomin Ibabe**, Liorra baserrikoa, **Bixente Garai**, Biezkoakoa, **Migel Arretxe** Arretxena eta **Alejandro Zubia**.

Makurtuta, ezkerretik eskumara, **Fermin Zubia** Garaiko Txikikoa, **Silvestre Pildain** Erregena baserrikoa eta

Juan Okina Garaikoa.

San Esteban egunez, abuztuaren 3an ateratakoa behar du izan, Garaikoa baserriaren aurrealdean inondik ere. Sasoi hartako jaiak hiru egunetakoak izaten ziren, eta hurrengo domekan ere bai gero. Bastanteko jendetza juntatzen zen, baita Elorrixo aldetik ere. Auzotarrek esaten duten moduan, "halako auzorik besterik ez. Ze auzok dauko, ba, 3 restaurante eta pizinie?"

Jokulari amorratuak izan dira Udelarrak, bai kuadrila honetakoak behintzat. Tutean

eta julapean jo eta sua, eta kalera ere gutxi etortzen ziren. Kartetan bakarrik ez, San Esteban inguruetan boluetan ere egiten zen.

Talde honetako batzuk 48 ordu geratu barik jokuan eginak dira. San Valerio bezperabaten, astelehena tokatzen eizen urte hartan Mihetzerrekako jaia, Sarako tabernan gabez berakazopak eskatu eta juntatu ziren eta batzuk martitzenean goizaldera bueltatu ziren etxera jokuan egin eta gero.

Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Arreta handiko
sukaldea
Giro abegikorra

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Pisu bat behar da alokatzeko.** Hutsik ba dago hobe. Tfnoa: 77 11 22. Gaez.
- **Laredon uztailean apartamendua** alokatzen da. Hondartza ondoan. Tfnoa: 79 52 80.
- **Torrevejan (Alicanten) apartamendua alokatzen da** ekaina, uztaile eta abuztuan. Hilabete osoetarako edo hamabost egunetarako. 78 14 72.
- **Pisua saltzen da erdialdean.** Tfnoa: 79 37 96.
- **Etxebizitza salgai edo alokairuan.** 90 m² despatxua jartzeko oso aproposa. Tfnoa: 79 64 50.
- **Salouko Pinedan apartamentua alokatzen da.** Tfnoa: 79 45 74.
- **La Bastidan duplexa salgai.** Tfnoa: 79 65 39.
- **Peñiscolan apartamentu bungalow-a alokatzen da.** Hondartzatik gertu dago. Tfnoa: 27 01 37. Itziar.

Lana

- **Etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko prest.** Tfnoa: 77 01 43. Idoia.
- **Esperientziadun neska** pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko eskaintzen da. Tfnoa: 79 72 92. Elena.
- **Prest nago atarte, bulego eta lokal** komertzialak garbitzeko. Tfnoa: 79 49 05. Edurne.

• **Gertu nago umeak zaintzeko.** Tfnoa: 79 82 98. Sonia.

• **Lan barik nago. Edozein almazenetako** edo antzerako lanetan lan egingo nuke. Tfnoa: 78 00 63.

• **Alemaneko ikastaro trinkoak uztailean.** Ordu-tegia konkretatzeko. Tfnoa: 79 78 75.

• **Uztailean ere ingelesez.** Talde txikiak! Tfnoa: 79 24 59.

• **Loragintza ikasketak egin dituen norbait behar da** lorategi bat orduka zaintzeko. Tfnoa: 79 44 47. Amaia.

Salerosketak

• **Suzuki Lido markako moto berria salgai.** Gauzak eramateko maleta ere badauka. Tfnoa: 79 38 16.

• **Moto Guzzi "Custom" 1000 c.c. motorra salgai** 400.000 PTA. Tfnoa: 7987 62. Joxe.

• **Imar markako karro-denda salgai, alboko abantze eta kutxa handia barne.** Oso gutxi erabilia. Tfnoa: 79 76 07 Jaime.

• **Citroën AX, GT hobekuntza askorekin salgai.** SS-AH. Tfnoa: 78 33 09.

• **Karretila jasogailua salgai.** Prezio negoziagarria. Tfnoa: 79 85 09.

• **Bustner markako karabana salgai.** Seilagunen-tzako plazakoa. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 42 65.

• **Salgai;** Kastinger bota bikoitza, plastikozko karkasa eta botina. 42 numeroko. 5.000 PTA.

• **Kamet naruzko botak, ia berriak.** 38-39 zkia. 3.000 PTA.

• **Artiach motxila, 50-60 l.** 5.000 PTA.

• **Serval motxila, 30-40 l.** 3.000 PTA.

• **Forroa L'Igloo urdina.** taila 4. 5.000 PTA.

• **Contini markako karreterako bizikleta look pedalekin.** R-100 zapatilak eta kilometroak neurtzekoa. 30.000 PTA.

Tfnoa: 79 15 07. Bittor.

• **Matrikula ingeleseko Kawasaki 550 GT 83 urtekoa salgai.** 150.000 PTA. Tfnoa: 79 90 36. Richard.

• **Transformatutako Vanette furgoneta salgai.** Ohea, sukaldea, izozkailua, mahai, iturria etb. ditu. Tfnoa: 79 28 81.

Denotarik

• **Pisu larregi duten 100 lagun behar ditugu.** Produktu natural iraultzailea medikuek gomendatua arriskurik gabeko proba. %100 garantiatua. Informazioa: 79 04 62. M^a Jose.

• **Inperdible bat daukan giltza joko tapatu dut.** Zeurea bada jo Udaltzaingora.

• **Frantziako Pau herriko neska batek Arrasatera au pair** modura etorri nahi du irailetik otsailera. Tfnoa: 79 54 46. Urri.

Aste Gazte

Mountain bike

• Arabatik Zehar BTT II Trabesia. Uztailek 31-abuztuak 4. 250 Km 5 etapatan. Inskripzioak: 12.500 PTA federatuak eta 13.500 federatugabekoak (otorduak, aseguruak, e. a. barne)

Diputazioko oporraldiak

• Zoketan plazaren bat tokatu zaizuen 14-17 urte bitartekoek inskripzioa egiteko inprimakiak jaso behar dituzue. Bulegoan.

Bekak

• Musika ikasketak sakontzeko. Dirulaguntza: 115.000 PTA. Epea: ekainak 30.

• EE.BB.etan ikasketak sakontzeko bekak. 90etik aurrera lizentziatu diren 35 urtetik beherakoei zuzendutak. Epea: irailak 10.

• Kontsumo arloan ikasketak nahiz ikerketak burutzeko bekak. Eusko Jaurlaritzak deitutak. Zuzenbidean, Biologian, Kimikan, e.a.n lizentziatuei zuzendutak. Epea: irailak 21.

Ikastaroak

• Zaldian ibiltzeko ikastaroak Urkulun. Uztaile eta irailean. 2 astetakoak, egunero ordubete. Goizez nahiz arratsalde. Matrikula: langabetu eta ikasleentzako 6.000 PTA 9.000 gainontzekoentzat.

• Parapente, rafting, piraguisimo eta kañoi jeitsierak. Ikastaroak. Langabetu eta ikasleentzako prezio bereziak.

Lehiaketak

• "Hiru handiak" V. Argazki lehiaketa. Zuribeltzez nahiz koloretan. Epea: uztailek 31.

"14 urte neuzkala, ene aita hain zen lerdoaz ezzen jasate zaila suertatzen baitzitzaidan. 21 betetzear, berriz, harrizta gelditu nintzen 7 urtetan aitak zenbat ikasia zuen ikustean"

MARK TWAIN (IDAZLEA)



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

ZER NAHIAGO?

Jose Ramon Otamendi

Otamendi harategikoa



- **Haragirik goxoa?** Txahalen "Bocado de reina" deitzen dena.
- **Eta gehien saltzen dena?** Oilaskoak eta txahalen haragia.
- **Zenbat bezero egunean?** Astegunetan 80, asteburutan 150.
- **Ezkontza askotan egon zara?** Bai, aurten ere euki bat eta beste bat daukat.
- **Dutxatzeko ur hotza ala beroa?** Ez bat ez beste, epela.
- **Erropa erosten duzunean, markari begiraten diozu?** Ez, gustokoa baldin bada, nahiko.
- **Erosketak Arrasaten egiten dituzu?** Bai, ia beti herrian egiten ditut.
- **Azokara joateko ohiturarik?** Nik ez dut ohitura gehiegi, baina etxeokok bai.
- **Zer hartzen duzu kontutan txekor batean, ona ala txarra den jakiteko?** Nola hazi den, aurrekalde eta atzekaldeak eta kiloak, noski.
- **Zer iruditzen zaizkizu politikoak?** Denak lotsagabe batzuk direla.
- **Soziedadera joaten zara?** Bai, baina oso gutxi.
- **Farmaziara?** Zorionez, oso gutxi.
- **Zein da duzun ohitura txarrena?** Norberarentzat ez dago ohitura txarrik.
- **Moderno ala klasikoa zara?** Klasikoa.
- **Gasteiz ala Donostia?** Donostia.
- **Gimnasia joaten zara?** Ez, egiten dudan kirol bakarra mendira joatea da.
- **Ekologista zara?** Ekologista naiz, ehiztaria naizelako.

BERTSOAK

Peña bertsolariaren aita hilberri

1

Baten senarra, batzuen aita eta askoren laguna jende jator bat azi eta ezi eta mundutik jundana sortzen lagun zuenak berriz deitu dio beregana uts eite denak barkatu eta zeukin hartu zazu Jauna.

2

Ta bereziki gaur zuregana natorkizu Anjel Mari dakidalako zein astuna den zuk duzun utsuna hori orretarako sortu zinen eta jarraitu zazu kantari aita zeruan dago Jaunakin pozik entzuteko zuri.

AGARRE



URONDO

elektrizitatea

- * **Elektragaiak**
- * **Instalazioak**
- * **Automatismoak**
- * **Argiztapena**
- * **Bobinaketak**
- * **Proiektuak**

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE

esan bai

● UDA IKASTAROA 93 ●

Ekainaren 28tik uztailaren 23ra arte

5 ordu goizez
Maila guztiak

MATRIKULALDIA

Ekainaren 1etik 18ra arte

Prezioa: 6.300 PTA


16 urtetik gorakoentzat

Bekatzeko sistema dago

Informazio zehatzagoa:
Arrasateko Udal Euskaltegia
Arimazuri, 2. ARRASATE

Tfnoa: 79 70 77 / 79 77 88

UDAL



EUSKALTEGIA

MITOLOGIA

LAMINAK ETA
MAIDEAK (I)

Kobazulo, putzu eta erreketan bizi diren izakiak dira, giza itxurakoak izan arren, hegazti oinak dituztelarik. Gizonezkoei, Maide deitzen zaie, eta emakumezkoei (ezagunagoak) Lamin.

Maideei buruzko kontakizunak oso urriak dira eta betetzen dituzten funtzioak beste izaki batzuren berdinak dira. Horrela, zenbait lekutan, harrespilen egiletzat dauzkate, edo trikuharrien egiletzat beste zenbaitetan.

Laminei buruzko ipuinak berriz, ugariak dira. Euren jardun ezagunenak, erreketan erropak garbitu eta urrezko orraziarekin ilea orraztea dira; baina trikuharri, zubi etxe eta gazteluen eraikuntza ere beraiei egozten diete.

Gaur egun, laminetaz hitzegiterakoan, beste garai bateko ustezko izakiak balira bezala aritzen gara. Halere, aurrean esaera zahar ezagun hau gogora datorkion jendea ere bada: "Izena duen guztia omen da". Esaldi honek kristau ikuspegiarekiko duen alde delako eta, beste esaera bat moldatu da: "Direnik ez da sinistu behar; ez direla ez esan behar".

LIHER LARREA



Kanpotik dantzara datozen haurrei bazkaltzen emateko laguntza nahi dute dantza taldeek.

Haur Dantzarien Egunean 400 umek beteko dute herria

Ekainaren 20an, igandean zortzi, Haur Dantzarien Eguna ospatuko da Arrasaten. Urtero egiten den jai hau San Juanetako egitarauaren barruan geratzen da, baina izazera propioa dauka: Lore Gazteak eta Txikitxu (Arrostaitz taldeko gaztetxoak) dantza taldeek umeekin urte osoan egiten duten lanaren adierazgarria eta puntu gorena da.

400 bat ume bilduko dira Arrasaten domeka horretan. Arrasateko bi taldeez gain, Deba Garaiko beste dantza taldeek ere bidaliko dute ordezkaritza, eta gonbidatu egin dituzte gainera Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa eta Iparraldeko talde bana. Guztira 11 bat talde, eta bakoitzean 40 bat ume dantzari.

Guztiei jaten emateko, antolatzaileek arrasatearren laguntza eskatu dute, jendeak umeak etxera eraman dituzten bazkaltzen emateko. Laguntzeko prest dagoenak Hire liburudendan edo AEDn eman dezalazena. Arrasatekoak ere beste herri batzuetara joaten direnean, hala hartzen dituzte etxeetan. Dantza taldeek trukean egiten dituzte bisitak normalean: Bailarako dantzari egunetan beti izaten dira herri guztietakoak. Adibidez, joan den igandean (6an) Sorraluzen izan ziren, eta hilaren 27an Antzuolan egongo dira.

Jai hauek izaten dira dantza taldeek kanpora begira egiten duten gauzarik ikusgarriena. Baina urte osoan zehar umeentzako dantza ikas-

taroak ematen aritzen dira, doan. Lore Gazteak-en kasuan, astelehenetan 5-6 urtetik 10era bitartekoak jotak ikasten ibiltzen dira, oinarrikoena. Ostegunetan, 9-10 urtetik 14ra, jotekin segi eta Santamesateko dantzara eta beste batzuetara pasatzen dira. Aurrerago badaude ikastaro gehiago, Larrain-dantza ikasteko adibidez. Arrostaitz dantza taldeak jende nagusiarentzako ikastaroak ere egiten ditu, 16 urtetik aurrera nahi duenak hartzen du parte.

Hori bai, arduradunek betiko kexuarekin segitzen dute: mutil gutxitxok ematen duela izena. Futbola dela edo, dantzarako gutxiri geratzen zaio astia. Nolabait, estereotipo batzuek bizirik diraute.



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
larruzko artikulua

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84



Tfnoa: 79 16 04

ITURRIOTZ
taberna

Girorik
jatorrena!

VE ECUADOR


Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

• ESAERA ZAHARRA •

*“Deabrua
adintsu.
hortarako ere
jakintsu”*

• JEROGLIFIKOA •



Portua.

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10					11		
12					13		
14			15	16			
17		18					19
20				21			

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Espartzuak. 9. Etorb. Udala plazatik Garagartzaruntz. 10. Aintzira. 11. (Ald.) Sartu aditzaren infinitiboa. 12. Abizen euskalduna. 13. Ezker Sindikal Koordinakundea. 14. Sozietate Anonimoa. 15. Kubako ibaia. 17. Esnegain. 19. Aluminioa. 20. Andoni kontsonante gabe. 21. Hosto.

Bertikalak 1. Ur-hegazia. 2. Arakoko Udala. 3. Gai itsaskorra. 4. Zortzigarren hilabete. 5. Malagako ibilgailuetan. 6. Metale preziatua. 7. Nafarroako Udala. 8. Erre. 16. Denak. 18. Hitz grekoa. 19. Ez eme.

• HOROSKOPOA •

Aries Ez egin oportetarako planik, etxean geatu beharko baituzu diru faltaz.

Taurus Ispiluan ongi begiratzen baduzu, burusoi gelditzen ari zarela ikusiko duzu.

Gemini “Pretendiente” asko dituzun arren, amodio kontuan ez duzu etorkizunik.

Cancer Ez jan gehiegi, udarako beharrezkoa baita gorputz liraina.

Leo Lasaitasun pixka batek egiten dizu falta, urduri zabilta eta.

Virgo Onegia zara, malezia pixka bat ere ez zaizu gaizki etorriko.

Libra Harro samar zabilta, baina etorriko zaizu umiltzeko garaia.

Scorpio Jantzi berdeak ongi doazkizu. Oso dotore zaude.

Sagitaris Datorren astean lan on bat aurkituko duzu.

Capricorn Kirolari itxura handia duzu, baina itxuraz bakarrik konformatu behar.

Aquarius Gaixoturik zabilzan arren, eguraldi onak sendatuko zaitu.

Piscis Txakur ezgul horrekin inguruko denak izutzen dituzu.

Auzolandegiak Iparraldean KANBON (LAPURDIN)



- Bigarren zikloko ikasketetan izan duen ikasle gorakadak bere instalakuntzak anpliatzera bultzatu du SEASKAK.
- Edozein lan egiten dakien jendea behar da.
- Goizez lana egingo litzateke 8etatik 12.30etara eta arratsaldean iparraldea ezagutuko litzateke.
- 3 txanda antolatu dira:
 - uztailaren 4etik 18ra
 - uztailaren 18tik abuztuaren 1era
 - abuztuaren 1etik 15era

- Matrikularen prezioa 10.000 PTAKoa izango da. SEASKAri lagundu, Iparraldea ezagutu eta lan giro jator eta euskaldun baten 15 egun igaro gura badituzu, zatoz berandu baino lehen AED elkartera edo dei egizu **77 12 28 / 79 54 46** telefonoetara.



Auzolandegi hauek **AEDko Gazte Mobidak** eta **SEASKAK** antolatzen dituzte **Arrasateko Udaleko Euskara eta Gazteria Batzordeen** laguntzarekin eta **Gipuzkoako Foru Aldundiaren** kolaborazioarekin.

MITOLOGIA

LAMINAK ETA
MAIDEAK (I)

Kobazulo, putzu eta erreketan bizi diren izaikiak dira, giza itxurakoak izan arren, hegazti oinak dituztelarik. Gizonezkoei, Maide deitzen zaie, eta emakumezkoei (ezagunagoak) Lamin.

Maideei buruzko kontakizunak oso urriak dira eta betetzen dituzten funtzioak beste izaki batzuren berdinak dira. Horrela, zenbait lekutan, harrespilen egiletzat daukate, edo trikuharrien egiletzat beste zenbaitetan.

Laminei buruzko ipuinak berriz, ugariak dira. Euren jardun ezagunenak, erreketan erropak garbitu eta urrezko orraziarekin ilea orraztea dira; baina trikuharri, zubi etxe eta gazteluen eraikuntza ere beraiei egozten diete.

Gaur egun, laminetaz hitzegiterakoan, beste garai bateko ustezko izaikiak balira bezala aritzen gara. Halere, aurrean esaera zahar ezagun hau gogora datorkion jendea ere bada: "Izena duen guztia omen da". Esaldi honek kristau ikuspegiarekiko duen alde delata eta, beste esaera bat moldatu da: "Direnik ez da sinistu behar; ez dirrela ez esan behar".

LIHER LARREA



Kanpotik dantzara datozen haurrei bazkaltzen emateko laguntza nahi dute dantza taldeek.

Haur Dantzarien Egunean 400 umek beteko dute herria

Ekainaren 20an, igandean zortzi, Haur Dantzarien Eguna ospatuko da Arrasaten. Urtero egiten den jai hau Sanjuanetako egitarauaren barruan geratzen da, baina izaera propioa dauka: Lore Gazteak eta Txikitxu (Arrostaitz taldeko gaztetxoak) dantza taldeek umeekin urte osoan egiten duten lanaren adierazgarria eta puntu gorena da.

400 bat ume bilduko dira Arrasaten domeka horretan. Arrasateko bi taldeez gain, Deba Garaiko beste dantza taldeek ere bidaliko dute ordezkaritza, eta gonbidatu egin dituzte gainera Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa eta Iparraldeko talde bana. Guztira 11 bat talde, eta bakoitzean 40 bat ume dantzari.

Guztiei jaten emateko, antolatzaileek arrasatearren laguntza eskatu dute, jendeak umeak etxera eraman ditzan bazkaltzen emateko. Laguntzeko prest dagoenak Hire liburudendan edo AEDn eman dezalazena. Arrasatekoak ere beste herri batzuetara joaten direnean, hala hartzen dituzte etxeetan. Dantza taldeek trukean egiten dituzte bisitak normalean: Bailarako dantzari egunetan beti izaten dira herri guztietakoak. Adibidez, joan den igandean (6an) Sorraluzen izan ziren, eta hilaren 27an Antzuolan egongo dira.

Jai hauek izaten dira dantza taldeek kanpora begira egiten duten gauzarik ikusgarriena. Baina urte osoan zehar umeentzako dantza ikas-

taroak ematen aritzen dira, doan. Lore Gazteak-en kasuan, astelehenetan 5-6 urtetik 10era bitartekoak jotak ikasten ibiltzen dira, oinarri-zkoena. Ostegunetan, 9-10 urtetik 14ra, jotekin segi eta Santamesateko dantzara eta beste batzuetara pasatzen dira. Aurrerago badaude ikastaro gehiago, Larrain-dantza ikasteko adibidez. Arrostaitz dantza taldeak jende nagusiarentzako ikastaroak ere egiten ditu, 16 urtetik aurrera nahi duenak hartzen du parte.

Hori bai, arduradunek betiko kexuarekin segitzen dute: mutil gutxitxok ematen duela izena. Futbola dela edo, dantzarako gutxiri geratzen zaio astia. Nolabait, estereotipo batzuek bizirik diraute.



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
larruzko artikulua

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84



Tfnoa: 79 16 04

ITURRIOTZ
taberna

Girorik
jatorrena!

VE ECUADOR


Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

• ESAERA ZAHARRA •

*“Deabrua
adintsu.
hortarako ere
jakintsu”*

• JEROGLIFIKOA •



Portua.

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10					11		
12					13		
14			15	16			
17		18					19
20				21			

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Espartzuak. 9. Etorb. Udala plazatik Garagartzaruntz. 10. Aintzira. 11. (Ald.) Sartu aditzaren infinitiboa. 12. Abizen euskalduna. 13. Ezker Sindikal Koordinakundea. 14. Sozietate Anonimoa. 15. Kubako ibaia. 17. Esnegain. 19. Aluminioa. 20. Andoni kontsonante gabe. 21. Hosto.

Bertikalak 1. Ur-hegaztia. 2. Arabako Udala. 3. Gai itsaskorra. 4. Zortzigarren hilabete. 5. Malagako ibilgailuetan. 6. Metale preziatua. 7. Nafarroako Udala. 8. Erre. 16. Denak. 18. Hitz grekoa. 19. Ez eme.

• HOROSKOPOA •

Aries Ez egin oportetarako planik, etxean geatu beharko baituzu diru faltaz.

Taurus Ispiluan ongi begiratzen baduzu, burusoil gelditzen ari zarela ikusiko duzu.

Gemini “Pretendiente” asko dituzun arren, amodio kontuan ez duzu etorkizunik.

Cancer Ez jan gehiegi, udarako beharrezkoa baita gorputz liraina.

Leo Lasaitasun pixka batek egiten dizu falta, urduri zabilta eta.

Virgo Onegia zara, malezia pixka bat ere ez zaizu gaizki etorriko.

Libra Harro samar zabilta, baina etorriko zaizu umiltzeko garaia.

Scorpio Jantzi berdeak ongi doazkizu. Oso dotore zaude.

Sagitaris Datorren astean lan on bat aurkituko duzu.

Capricorn Kirolari itxura handia duzu, baina itxuraz bakarrik konformatu behar.

Aquarius Gaixoturik zabilzan arren, eguraldi onak sendatuko zaitu.

Piscis Txakur ezgul horrekin inguruko denak izutzen dituzu.

Auzolandegiak Iparraldean KANBON (LAPURDIN)

- Bigarren zikloko ikasketetan izan duen ikasle gorakadak bere instalakuntzak anpliatzera bultzatu du SEASKAk.
- Edozein lan egiten dakien jendea behar da.
- Goizez lana egingo litzateke 8etatik 12.30etara eta arratsaldean iparraldea ezagutuko litzateke.
- 3 txanda antolatu dira:
 - uztailaren 4etik 18ra
 - uztailaren 18tik abuztuaren 1era
 - abuztuaren 1etik 15era




- Matrikularen prezioa 10.000 PTAkoa izango da. SEASKAri lagundu, Iparraldea ezagutu eta lan giro jator eta euskaldun baten 15 egun igaro gura badituzu, zatoz berandu baino lehen AED elkartera edo dei egizu **77 12 28 / 79 54 46** telefonoetara.



Auzolandegi hauek **AEDko Gazte Mobidak** eta **SEASKAk** antolatzen dituzte **Arrasateko Udaleko Euskara eta Gazteria Batzordeen** laguntzarekin eta **Gipuzkoako Foru Aldundiaren** kolaborazioarekin.

EKAIN VELEZ DE MENDIZABALEN GOMENDIOA




Irakurzalea da Ekain, eta bi liburu gomendatu nahi ditu, biak ere poesia liburuak: Joxe Austin Arrietaren "Mintzoen Mintzak" eta Pako Aristiren Iraileko ipuin eta poemak.

Lehenengoan hizkuntza zaila, pentsamenduak, idazlearen izakera eta ingurunea nahasten dira. Aristirenak, berriz, kontakizun eta karten artean txertatze ditu Sara Balaskyren poemak.

"Poesia sentimentudun pertsonentzat dela esaten du jendeak, baina, bai zera! denontzat da. Irakurri, irakurtzen dakien edozeinek irakur dezake edozer gauza, gustora jende gutxik irakurri arren".

KOMIKIA



PROGRAMAZIOA



13 Igandea

8.15 Monterock
8.45 Mondragol

14 Astelehena

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Mondragol
8.8.30.9 Berriak
9.30 Mondra Sport
10.00 Asteko Zinea:
Arka galduaren bila

15 Asteartea

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Mondra Sport
8.8.30.9 Berriak.
9.30 Bakarka: Maddalen Lujanbio
10.00 Asteko Zinea:
Arka galduaren bila

16 Asteazkena

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bakarka: Maddalen Lujanbio
8.8.30.9 Berriak
9.30 Pareak Jokuan: Zezenak
10.00 Asteko Zinea:
Arka galduaren bila

17 Osteguna

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Pareak Jokuan: Zezenak
8.8.30.9 Berriak
9.30 ATBketan
10.00 Asteko Zinea:
Arka galduaren bila

18 Ostirala

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 ATBketan
8.8.30.9 Berriak
9.30 Monterock.
10.00 Asteko Zinea:
Arka galduaren bila

SOLUZIOAK

keta.

JEROGLIFIKOA

Igaz eta aurten.

8. Kiskalti; 16. Oro; 18. pi; 19. Ar.

Lika; 4. Abuztua; 5. Ma; 6. Urrea; 7. Aras.

Bertikalak: 1. Kulisika; 2. Armatario; 3.


Orr.

SA; 15. Toa; 17. Kipur; 19. Al; 20. Aot; 21.

10. Laku; 11. Ras; 12. Imaz; 13. ESK; 14.

Horizontalak: 1. Kalamauk; 9. Urbart.

GURUTZEGRAMA



Parlance

INGELES

1993-94 IKASTURTERAKO MATRIKULA ZABALIK

Izena emateko epea: ekainaren 14tik 25era

Informazio eta matrikulazioa:

Ferreries, 11 etxabea. 5etatik 7etara Tfnoa: 77 06 83

TXAPELDUN SENTITZEN

BAZARA...



Euskadiko Renault sarea. MECA tailerrak ARRASATE